

## Kultura

Zain: "Bihar Berrizen jotzeko ilusio berezia dugu, ekainetik ez dugulako jo eta disko berria gure herriko gaztetxean aurkeztuko dugulako" > 11



## "Durangogaz iragan komun bat partekatzen dugu"

Bartzelonako Udalak Frankismoaren aurkako kereila bertako auzitegi batek onartzea lortu du; estatuan aitzindaria da. Jaume Asens Bartzelonako alkateordea Durangoko kereilaren prozesua aholkatzen egon da. ANBOTOren deia erantzun dio. > 2-3



Argazkilaria: Dani Codina

## Ertzaintzak eraso sexista bat zalantzan jarri izana salatu dute

Joan zen asteburuan eraso sexistaren salaketa bi jazo ziren Durangon. Baina Ertzaintzak kasu bat zalantzan ipini eta lapurreta saiakeragaz lotu zuen. Plataforma Feministaren ustez, gertaera "larria" da hori, eta polizien jarrera aztertzea eskatu du. Martitzenean dozenaka lagun batu ziren erasoak salatuzko kontzentrazioan. > 4

## "Islama irakasteko eskari kopuru nahikoa dago, eta irakasle gabe daude hainbat eskola"



Faouzia Ben Omar | Irakaslea > 18



## Rio de Oro, Herriaren errelebo izateko prest

Saharako errefuxiatuen aldeko karabana solidarioa bihar irtengo da Donostiatik Aljeriarantz, eta tartean Durangaldean betetako kamioi

bat joango da. Guztira, 23.600 kilo elikagai inguru, eta beste hainbat material ere bai. Eguaztenean Elorrioren egin zuten aurkezpena, eta elkartasunezko lan horretan errelebo bat emango dela ere iragarri zuten. Izan ere, Durangoko Herria elkarteak ardura utziko du 14 urteren ostean, eta Rio de Oroko kideek hartuko dute lekukoa. Lajwad talde elorriarra eta Hamadako Izarrak ere aurrera begira daude. > 5

## Zornotza > 6

Bernako auzotarren eskaerak Aldundira helarazi ditu udalak

## Durango > 4

Sorginolako lapurretei jaialdi batez erantzun zuten

## Mañaria > 8

Bizileku hutsen inbentarioa egingo du Mañariko Udalak

## Atxondo > 9

Arrazolako eskola zaharreko lanak aurtengo inbertsio nagusia

## Herririk herri

# “Inpunitate frankistari amaiera emateko, hirien arteko elkarlana ezinbestekoa da”

Bartzelonako alkateordea Durangogaz elkarlanerako prest agertu da, bonbardaketen kereila lantzeko

**DURANGO** Markel Onaindia Gerra Zibileko eta Frankismo-ko krimenak argitzeko lanean dabilzanek argi printza bat ikusi dute Bartzelonako Udalak landutako kereilagaz. Izan ere, Italiako abazioak Kataluniako hiriburuan egindako bonbardaketen auzia tramitera onartu du hango epaitegi batek; estatuan hori gertatzen den lehen aldia da. Horrez gainera, Argentinako kereilan ere parte hartzen dabilta, eta herritarrei lekukotzak egiteko aukera eman diete. Ada Colaturen gobernuan alkateorde (Barcelona En Comú) eta abokatu ere baden Jaume Asens Durangon egon zen, euren lanaz aholku emateko. Memoriaren elkartruke kulturala proposatu dio Durangori, eta bi udalak senidetze bidean dira.

Zergatik erabaki du Bartzelonako Udalak Frankismoaren aurkako kereilan murgiltzea? Galdera alderantziz egin behar genuke. Bartzelona hiriak iragan antifrankista izanik, zelan ez zeukan hasita oraindik inpunitatearen aurkako borroka? Legatu hori duintasunez hartzea gura dugu, soilik. Bonbardatutako milaka katalanek ez zuten hil behar, eta krimen horiek zigorrik barik daude oraindik. Denborak ez du egilearen ardura ezabatzen.

Argentinako kereilan parte hartzea erraztu zenieten herritarrei, fitxa batzuen bidez. Justizia argentinarraren bidez ekitea izan zen aukeratutako bide bat, Maria Servini epaileak instruitzen duen auzian. Zehazki, Buenos Aireseko 1. zenbakiko auzitegian. Bartzelonako He-



Jaume Asens, udal alkateordea, egindako interbentzio batean. Bartzelonako Udala

“Durangogaz iragan komun bat partekatzen dugula sentitzen dugu”

rritarren Arretarako Bulegoak epaitegi horren leihatila lez egokitu genituen, herritarrei tramitea errazteko. Sartu dituzten eskaeren kopurua ezagutzeko prozesuan gaude gaur egun.

Bartzelonako epaitegi batek tramitera onartu du kereila. Aurrez ez da horrelakorik gertatu? Pilotu bat bizirik egotea izan da giltza.

“Nazioarteko arau guztiak urratzen zituzten Italiako abazioaren bonbardaketek”

Horrela da, bai. Kereila hori Bartzelonako epaitegi batean instruitzen da, eta Aviazione Legionariaiko 21 pilotu seinalatzen ditu, gizateriaren aurkako krimenengatik. 1937. eta 1939. urteen artean Kataluniako hiriburuko bonbardaketetan parte hartu zuten pilotuak ziren, kasik 5.000 zibil hildako eragin zituztenak, historialarien estimazioen arabera. Badakigu batek behintzat bizirik jarraitzen duela, oso zaharra den arren, eta bere galdetara baimentzeko zain gaude. Denbora aurka dugu.

Zelako eragina eduki zuten Bartzelonan faxistek burututako bonbardaketek?

Hondamendia izan zen. Orduko hiriko bizilagun batzuk bizi dira oraindik, eta justua da krimen horien aurka deklaratu ahal izatea. Kereilan kaltetutako bat, adibidez, bonbardaketetan umea zela zauritutako gizon zahar bat da. Eraso haietan, 1.808 eraikin apurtu zituzten. Masakreko gune ikonoetako batera bisita egitea besterik ez da behar horretaz jabetzeko, udaletxe ondoko San Felip Neri plazara hain zuzen. Hiriko txoko magiko eta intimoetako bat da, eta dudarik barik, samin gehien batzen duena bere hormen artean. Elizaren fatxadan, lurralde katalaneko -eta baita espainiarrekoa ere- bonbardaketarik basatiene-tako baten aztarnak nabari daitezke, ingurua suntsitu zuena, haurtzaindegi bat barne. 1938ko urtarrilaren 30eko 09:00etako eraso hartan, 153 hildako zenbatu dituzte historialariek, eta gehienak umeak ziren.

Eraso bortitzak egin zituzten italiarrek, beraz.

Sasoi hartan gerrak arautzen zituzten nazioarteko arau guztiak urratzen zituzten Italiako abazioaren bonbardaketek. Batetik, kanpoko esku-hartze militar ilegal bat izan zelako, Italiaren partetik gerra deklaraziorik bakoa; bestetik, erasoaren helburua gizarte zibila zelako, desarmatua

**anboto** 

komunikabideak  
Bixente Kapanaga, 9  
48215 Iurreta  
Bizkaia  
Tel.: 946 816 558  
Erredakzioa:  
946 232 523  
Publizitatea:  
946 217 902  
publi@anboto.org

2017ko otsailaren 24a  
14. urtea - 666. alea

**Zuzendaria:**  
Jone Guenetxea Arrinda.  
**Administrazio burua:**  
Itziar Belar Zubizarreta.  
**Administrazioa:**  
Miren Abasolo Txabarri.  
**Publizitatea:**  
Itxaso Martinez de  
Arenaza Yarza eta Nagore  
Txintxurreta Isasi.  
**Erredakzioa:**  
Aitziber Basauri Gandiaga,  
Itsaso Esteban Urriaga,  
Joseba Derteano Bilbao,  
Markel Onaindia Txabarri,  
eta Maialen Zuazubiskar  
Gallastegi.  
**Maketazioa:**  
Eider Alberdi Bengoa.  
**Zuzentzailea:**  
Mikel Azkarraga Etxegibel.

Laguntzaileak:



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLITICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

Aldizkari honek  
Bizkaiko Foru  
Aldundiaren  
laguntza jaso du



eta borroka frontetik urrun zegoena.

**Durangon egon zinen abenduan, zuen prozesuaz aholkatzen. Zelan ikusten duzu hemengo auzia?**

Durango ere, jasan zituen bombardaketen aurka aurkeztuko dela jakin berri du, eta pozten gara Bartzelonako pausoei jarraitzeaz. Durangogaz iragan komun bat partekatzen dugula sentitzen du. Euren borroka gurea ere bada, eta inpunitate frankistari amaiera emateko, uste du ezinbestekoa dela hi-

“  
153 hildako  
zenbatu dituzte  
historialariek,  
eta gehienak  
umeak ziren”

rien arteko elkarlana. Horregatik, Durango, Gernika eta Elgeta herriei gure babesa eskaini diegu, eta aholku juridikoa ere bai, bide hori hautatzen badute. Gainera, gure memoriaren elkartruke kulturala ere egin gura dugu.

**Duela hile batzuk hainbat udalen artean konferentzia bat burutu zenuten kereilen harira. Zer pauso eman duzue?**

Durangogaz lez, gainerako hirien eskura ipini dugu Argentinan eta Bartzelonan zabaldua auzi judizialen esperientzia. Topaketa horrek inpunitatearen aurkako sare bat sortzeko balio izan zuen; tartean, Iruña, Gasteiz, A Coruña, Zaragoza, Rivas eta Cadiz. Beste hiriak ere *Egia, Justizia eta Erreparazioa* izeneko manifestuagaz bat egitera animatzeko aprobetxatzen dugu aukera hau. Udalgintzaren kooperazioa inpunitate frankista behin-betiko garaitzeko tresna izan ahal dela sinesten dugu.



Bonbardatutako hirien konferentzian, dokumentua sinatzeko unea. Bartzelonako Udala

## Durango Bartzelonagaz eta Kobanegaz senidetzeko ideia onartu dute batzordean

Martxoaren 31ko bombardaketaren oroimen ekitaldiak prestatzeko batzorde berezia sortu dute udalean



Michel Allison Kurdistango kongresuko emakumeen ordezkaria Durangon.

**DURANGO** M. Onaindia

Martxoaren 31n Durangoko bombardaketaren 80. urtemuga beteko da, eta hori gogoratzeko ekitaldiak prestatzen dabilta udalean, zeregin horretarako sortutako batzorde berezi batean. Arduradun politikoez gainera, Gerediaga Elkarte, Aranzadi, Durango 1936 Elkarte, Ongi Etorri Errefuxiatuak taldea eta Ongi Etorri Rojava-Kobane taldea ari dira parte hartzen batzorde horretan. Orain arte onartutako gai bat Bartzelona eta Kobane (Kurdistan) bonbardatutako hiriekin senidetzea da. Lanke-ta hori amaitu eta ofizial bihurtuko lukete martxoaren 31ko ekitaldien bueltan.

Oraindik ez dute egitarau osoa aurkeztu, baina ohiko ekitaldiez aparte berbaldiak eta erakusketak antolatuko dituzte. Arte eta Historia Museoan, esate baterako, Picasso margolariaren grabatu originalak ikusi ahal izango dira.

**Kereila, udalaren izenean**  
Bonbardaketaren egileei lotuta, nabarmentzekoa da erantzuleak auzitegietara eramateko prozesua hasiko dutela Durangon. Udalak Argentinako kereilara batzeko asmoa agertu zuen abenduan, eta, orain, hemengo auzitegietan garatuko den auzian ere bere izenean aurkeztea erabaki dute. Hasieran, Durango 1936 elkarteak aurkez-

tea zen plana, baina batzorde berezian prozesua udalak bere gain hartzea erabaki dute, alka-teak proposatuta. Bartzelonako Udalaren kereila hartuko dute eredu lez, auzitegiak tramitera onartu du eta.

2016ko abenduaren 28an erakunde-adierazpena irakurri zuen udalak, bombardaketaren erantzuleak auzitegietara eramateko aldarria egiteko. Hain zuzen ere, adierazpen horretan

Museoan, esaterako, Picassoren grabatu originalak ikusi ahal izango dira

batzorde berezi bat sortzea proposatu zuten martxoaren 31ra begira. Gainera, Argentinako kereilaren kasuan, parte hartu gura duten kaltetu durangarrei tramitea erraztea adostu zuten, bulego bat zabalduz.

**hitz** #gomendioak  
artekalea 23, durango  
946 810 776  
info@hitzliburudenda.com  
liburudenda

**Bizipenak** Hausnarketak  
Tasio Erkizia (2016)

**OZ** UME ETA GAZTEENTZAT  
OZ-EKO AZTI HARRIGARRIA  
L. Frank Baum (2015)

**hiru 3** MUSIKA  
3 TXULO  
Askoren artean (2015)

**ANTZERKIA BULTZATUZ**

**MARTXOAK 10 (umeentzako)**  
17:00// IBARRETXE KULTUR ETXEAN  
**AZKEN EGUZKILOREA**  
Patata Tropikala

**MARTXOAK 17 (helduentzako)**  
19:00// IBARRETXE KULTUR ETXEAN  
**FRIDA**  
Paco Leon-en zuzendaritza

**APIRILAK 6 (helduentzako)**  
19:00// IBARRETXE KULTUR ETXEAN  
**LA PERCHA**  
La Sombra Teatro

**APIRILAK 21 (umeentzako)**  
17:00// IBARRETXE KULTUR ETXEAN  
**AHATETXO ITSUSIA**  
Glu-Glu Produkzioak

**MAIATZAK 5 (helduentzako)**  
19:00// IBARRETXE KULTUR ETXEAN  
**NOMOFOTIAK SAREAN KATEATUAK**  
La Sombra Ttipia Kultura

**MAIATZAK 12 (umeentzako)**  
17:00// IBARRETXE KULTUR ETXEAN  
**BASERRIAN AMETS**  
Eidabe Ekimen Kulturalak

Sarrera dohainik - Gonbidapenak hartzeko kultur etxean

# Ertzaintzak eraso sexista bat zalantzan jarri izana “larria” dela esan dute feministek

Joan zen asteburuan eraso sexisten salaketa bi jazo ziren; Ertzaintzak lapurretagaz lotu zuen bat

**DURANGO** Markel Onaindia Zapatu gauetik domekara bitartean eraso sexisten salaketa bi jazo ziren Durangon, eta kasu baten gestioak zalaparta eragin du. Emakume bat komisariara joan zen sexu erasoagatik salaketa ipintzera, eta Ertzaintzak sexista lez baieztatu zuen eraso domekan bertan. Baina, astelehenean, iritziz aldatu eta lapurreta saiakeragaz lotu zuen. Martitzenean, erasoak arbuizatzeko

Feministek diote une zaila izan ohi dela salaketa jartzekoa, emakumea babestu beharrekoa dela

elkarretaratzean, Plataforma Feministak polizien jarrera kritikatu zuen, neskaren bertsioa zalantzan jartzeagatik. Gainera, euren arabera, deklarazio unetik izan zen zalantzia jarrera. “Guztiz larria eta salagarria iruditzen zaigu ertzainen jarrera;

emakumearen testigantza zalantzan jarri eta salaketa gauzatzeko oztopoak jarri zituzten”, adierazi dute. Ertzaintzaren jarrera aztertzea eta “ardura politikoa hartzea ezinbestekoa” dela uste dute.

Feministek diote une zaila izan ohi dela salaketa jartzekoa, emakumea babestu beharrekoa

dela, eta, horregatik, ez dute onartzen Ertzaintzari egotzita-ko jarrera hori. Horrez gainera, plataformakoek ohartarazi dute ez dela lehen aldia emakume batek ertzainen partetik trabak jasotzen dituen. “Okertuta dabilzala iradokitzea, salaketak ezertararako balio ez duela esa-

tea edo ziur ote dauden galdetzea etengabe”, poliziek esandakoak dira, feministen arabera.

## Gizon bik helduta

Lehen eraso zapatu gauetz geratu zen, neska bat bikotekide ohiak jo zuenean. Bigarrena –Ertzaintzak lapurretagaz lotu

duena-, dagoeneko domeka goizean, 07:30ean, neska etxerantz zihoala. Gizon bik heldu egin zuten, baina aurre egin eta eraso gehiagora joatea saihestu zuen.

## 2017an, 7 eraso Durangon

Martitzeneko elkarretaratzean dozenaka lagun batu ziren. Tar- tean, Aitziber Irigoras alkatea eta hainbat zinegotzi. 40 Minutu Rock elkartasun jaialdikoek ere babestu zuten mobilizazioa, erasoak jai horren testuinguruan eman zirela ulertuta.

Plataformako kideek gogoratu dute 2017an dagoeneko 7 eraso eman direla.



Martitzeneko kontzentrazioan dozenaka lagun batu ziren, Andra Marian.

# Sorginolan izandako lapurretari jaialdi batez erantzungo diote

Otsailaren 6ko gauean jazo zen lapurreta Tabira auzoan dagoen gaztetxean

**DURANGO** M. Onaindia Sorginolako kideek agerraldia egin zuten joan zen egunean, zenbait herritarren babesagaz gaztetxean izandako lapurretaren berri emateko. Neurriak hartzeaz aparte, lapurretak “erantzun indartsua” behar duela uste dute, eta jaialdia antolatu dute martxoaren 4rako.

Otsailaren 6ko gauean jazo zen lapurreta. Erremintak, aparatu elektronikoak, liburute- giko materiala eta edariak eraman zituzten lapurrek. Musika materialaren bila joan zirela uste dute gaztetxe-koek; material hori batuta zegoen, ordea.

Lapurretari garrantzia eman diote, eta era kolektiboan ulertu

dute gainera, “Durangoko gaz- teriari eginiko lapurreta” dela sentitzen dute.

Martxoaren 4an bazkari he- rrikoia prestatuko dute. Txarte- lak Mesoi Berrian, Intxaurren eta Tabira Etxen daude. Arratsalderako bingoa eta karta txapelketak iragarri dituzte, eta 20:30etik aurrera, kontzertua.

## Andaluziaren Eguna ospatuko dute flashmob batez

### DURANGO M.O.

Datorren martitzenean, otsai- lak 28, Andaluziaren Eguna izango da, eta Durangoko an- daluziarren elkarteak flash- mob bat antolatu du jai- a ospatzeko. 19:00etan hasiko da Ezkurdin eta Andra Marian, eta horren ostean, 20:00etan, “ohorezko ardoa” edango dute elkarte-ko egoitzan.

Egitaraua ez da 28ra mu- gatuko, hala ere. Martxoaren 4an ikuskizuna eskainiko dute San Agustin kulturgunean, 19:00etan. Sarrerak 4 euro ba- lio du; biharamunean bazkaria egingo dute Lapiko jatetxean, 14:15ean.

Bestalde, hilaren 18an, *La flamencura todo lo cura* tai- lerra emango dute egoitzan. “Flamenkoaren bidez familian harremanak izateko era berri bat aditzera ematen duen umorez beteriko ekintza” dela esan dute antolatzaileek. Helduek 15 euro ordaindu beharko dute, 13 eta 17 urte artekoek 10 euro, eta 6 eta 12 urte artekoek 5 euro.

## Enpresetan euskara sustatzea berbagai izango dute Durangon

### DURANGO M.O.

Durangaldeko Enpresen El- karteak hizkuntza proiektuen inguruko jardunaldi bat an- tolatu du martxoaren 2rako, Emun aholkularitza zerbitzua- gaz batera. Enpresetan euska- ra sustatzeko baliabideez jar- dungo dute, 09:30etik aurrera, elkarteak Muruetatorren duen egoitzan.

Enpresetan euskara sustatzeagatik ematen diren diru-laguntzak aztertuko dituzte

Besteak beste, enpresetan euskara sustatzeagatik ema- ten diren diru-laguntzak azter- tuko dituzte, eta erabileraren inguruko ziurtagiriaren inguru- ko informazioa ere bai. Fagor Ederlan enpresan hizkuntza proiektua edukitzeak ekarri- tako onurak azalduko ditu Or- tzi Egiak.



Sorginolako eta herritar batzuen agerraldia, egunean, Santa Ana plazan.



Eguaztenezan Elorrion egin zuten batutako elikagaien eta kamioiaren aurkezpena.

## Herriak karabana solidarioa utzi, eta Rio de Oro hartu du lekukoa

Bihar irtengo da euskal karabana; Durangaldetik kamioi bat joango da

**DURANGALDEA** M. Onaindia Durangoko Herria elkarteak utzi egingo du karabana solidarioa antolatzeko ardura, eta Rio de Oro elkarteak hartuko dio erreleboa. Herriako Periko Arevalok pozik eman du lekuko aldaketaren berri. "Ez genuen erreleborik ikusten, eta Rio de Oro animatu izana lasaitasuna izan da guretzat".

Duela 14 urtetik garatu dituzte karabana solidarioa eta Oporrak Bakean programa; azken hau ere Rio de Orokoek sustatuko dute. Mikel del Arco kideak euren sentipena azaldu du. "Le-

kukoa errespetu handiz hartzen dugu Herriak oso lan ona egin duelako, baina aurrera egiteko ilusioagaz ere bai". Azken urteetan desgaitasunen bat edo aniztasun funtzionala duten umeak ekarri izan dituzte Izurtzako kanpamentura, boluntario ugari batu dituen egitasmoan.

**23.600 kilo elikagai** Durangoko Herria, Elorrioko Lajwad eta eskualdeko Hamadako Izarrak taldeak ibili dira karabana solidarioa sustatzen. Zapatuan irtengo da euskal karabana Alacanteko portu-

rantz, handik Oranera (Aljeria) bidaiatzeko. Durangaldetik kamioi bat joango da, Angel Alejo gidari dela. 23.600 elikagai batu dituzte aurtien Saharako errefuxiatuei bidaltzeko; horrez aparte, 400 kilo arropa, 50 kaxa konpresa, labe bat, ogia oratzeko makina bat eta 750 kilo zementu ere bai. Herritarrek emandako 5 tona janaritik 2 Erorriokoak izan dira.

Abadiño, Atxondo, Berriz, Durango, Garai, Iurreta, Mallabia eta Zaldibarko udalek zein Amankomunazgoak 34.000 euro eman dituzte guztira.

## Berbaro eta Kimuak taldeak udalekuak lantzen ari dira

Aurtengo udalekuan izena emateko epea martxoaren 1etik 9ra arte ipini dute

**DURANGALDEA** M.O. Berbaro eta Kimuak elkarteak dagoeneko badabilta udalekuak prestatzen. Horren harira, inskripzio epea ere iragarri

dute, martxoaren 1etik 9ra izango dena.

Berbarok Aste Santuko oporretarako Udaberriari Olgetan zerbitzua eskainiko du, 3-11

urte artekoentzat. Udarako, Olgetan zerbitzua, udaleku finko bi-Mendigorrian eta Uitzin- eta beste ibiltari bi-Aiaraldean eta Durangotik Etxarrira-. Berbaroko egoitzan bertan eman behar da izena.

Kimuak kasuan, udaleku finko bi-Ozaetan eta Murgian-, finko-ibiltari bat-Gorozikatik Ispasterrera- eta ibiltari bat-Larrauldik Goizuetara- antolatuko dituzte. *kimuak-elkartea.eus* webean eman ahal da izena.

## Inauterietako argazki lehiaketa martxan da

'anboto.org' webgunean botorik gehien jasotzen duen argazkiak asteburu-pasa bat irabaziko du

**DURANGALDEA** J. Guenetxea Mozorro eta festaz betetako egun hauetan ateratako argazkiei etekina ateratzeko aukera eskainiko du ANBOTOK. Izan ere, Durangaldeko inauterietako argazkiekin lehiaketa antolatu du *anboto.org* webgunean, bigarren aldiz. Webgunean martxoaren 3an 12:00ak arte izango da argazkiak igotzeko aukera. Ondoren, irabazlea aukeratzeko bozketak jarriko da martxan. Martxoaren 3tik 9ra arte argazkirik onenari botoa emateko aukera izango da. Bestalde, martxoaren 10ean emango da irabazle berri, ANBOTOn webgunean eta

baiza barikuro kaleratzen den paperezko edizioan ere.

Irabazleak asteburu-pasa bat eramango du sari moduan. Oinarrien artean nabarmen-

ANBOTOK martxoaren 10ean emango du argazki lehiaketako irabazle berri

tzekoa da aurtien ateratako argazkiak izan behar direla. Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, 10 argazki aurkeztu ahal izango ditu.



lazko argazki lehiaketa irabazitako irudian Surrandiak dira protagonista.

## Elikagaiak manipulatzeko karneta atera ahalko da

**GARAI** M.O. Elikagaiak manipulatzeko karnet ofiziala atera ahalko da Garain, Trumoitte kultur elkarteari eskerrak. Martxoaren 7an kultur etxean burutuko da ikastaroa, 18:00etatik 21:00etarako ordutegian. Herritarrek doan

parte hartu ahalko dute, eta kampokoek 20 euro ordainduta.

Gehienez 30 laguneko taldea izango dela adierazi dute antolatzaileek, eta garaitarrek edukiko dute lehentasuna. 94 681 63 93 telefono zenbakira deitu behar da izena emateko.

**Albisteak eta agenda,** bizkor eta eskura.

**Telefono gida** osatuena: zuzenean deitzeko aukera.

**Parte hartu,** galderak eginez, erantzunak lortuz.

**Pertsonalizatu,** zure herria aukeratuz.

**DESKARGATU DOAN !**



**anboto.org**  
**MUGIKORREAN**



**URTXINTXA**  
**HEZIKETA JOSTAILUAK-ESKULANAK**



Andra Maria kalea, 9 DURANGO Tel.: 946 815 017



Bernako ermitaren eta gasolindegia arteko lurzoruan egingo dute biribilgunea.

## Bernako auzotarren eskaerak Aldundira helarazi ditu udalak

Zornotzarako bidean Eubaraino joan behar dute auzora sartzeko

**ZORNOTZA** Joseba Derteano N-634 errepidean, Berna auzorako sarreraren inguruan obretan dabilta. Aldundiak bidea berrantolatu eta biribilgune bat egingo du Bernako ermitaren parean. Lan horien ondorioz, Bernako autobus geltokietan ez da autobusik geratzen eta Durango-Zornotza norabidean ezin da Berna eta Bernabeiti auzoetara sartu kontrako erreia gurutzatuta. Lanak amaitzen

direnean ere ezingo da norabide horretan auzo bietara zuzenean sartu, biribilgune berria beharago doalako eta, ondorioz, ez duelako auzoetarako loturarik izango. Auzotarrek Eubaraino joan beharko dute noranzkoa aldatzera.

Udal ordezkariak auzotarrenkin batu zirenean eragozpen horiek jaso eta Aldundira helarazi zituzten. Udalak honakoa proposatu zuen: ezkerretara sartzeko

ko aukerari eustea, handik 400 bat metrora garatzeko asmoa dagoen industrialde bat egin arte. Hori egitean, hantxe aldatuko lukete noranzkoa auzotarrek Eubaraino joan beharrik barik.

Biribilgune berriaren helburua istripu arriskua gutxitzea da. Orain, Durango-Zornotza norabidean doanak gasolindegitik joan behar du, erreki biak gurutzatuz, baina azken urteetan hainbat istripu egon dira.

## LABek Elorrioren martitzenean gertatu zen lan istripua salatu du

**ELORRIO** M. Zuazubiskar Metal Smelting lantegian, lehen San Eloy galdategia zena, 43 urteko langile bat hil zen ondoezak jota, martitzenean.

LABek jakinarazi duenez, 2017an Euskal Herrian lan istripuz hil den zortzigarren langilea izan da Elorriokoa. Aste honetako laneko heriotzaren

2017an Euskal Herrian lan istripuz hil den zortzigarren langilea da Elorriokoa

atzean, lan baldintzen prekaritatean, enpresaren egoera eta laneko erritmo bortitza daudela esan dute sindikatukoek.

Metal Smelting enpresak egindako kaleratzeak eta "bertan dagoen presioa eta laneko erritmoa guztiz salagarriak" direla adierazi dute ohar bidez LABeko kideek. Hori guztia bukatu beharra dagoela esan dute sindikatukoek.

## Arrazakeriaren kontra jarduteko konpromisoa hartu du udalak

**ZALDIBAR** I.E. Martxoaren 21ean izaten den Arrazakeriaren eta Xenofobiaren Kontrako Nazioarteko Egunaren harira, *Zaldibarko Jendeak* taldeak aurkezturiko mozioa onartu zuen Zaldibarko Udalak joan zen eguneko ezohiko bilkuran. EH Bilduren eta EAJren aldeko botoekin, eta PSEko ordezkariaren abstentzioagaz onartu zuten mozioa. Idatzi hori onartuta, "arrazakeriaren eta xenofobiaren kontra lan egiten jarraitzeko konpromisoa berretsi" du Zaldibarko Udalak, eta baita aniztasunaren errespetuan oinarrituriko politikak oinarritzat hartuta, jardutea ere.

Ildo horretatik, Arrazakeriaren eta Xenofobiaren Kontrako Egunean, martxoaren 21ean, udaletxe aurreko plazan egingo den kontzentrazioan parte hartzeko deia egin die Zaldibarko Udalak herritarrei. Aniztasunaren aldeko jarraera agertzeko elkartuko dira, martxoaren 21ean, 19:00etan, udaletxe aurrean.

## Mugikorrei buruzko ikastaroa aukeren artean

**OTXANDIO** J. Derteano Apirilean informatika ikastaroak eskainiko dituzte KZ Gunean. Mugikorren erabilerari buruzkoak dira horietako bi. Batean mugikor eta tabletei ahalik eta etekinik handiena ateratzen irakatsiko dute. Besteak bat-bateko mezularitza landuko du. Hirugarren ikastaroa Googlen aplikazioen gainekoa da. Udalean eta liburategian eman daiteke izena.

## 25 urte joan dira Arietzu mendi taldea sortu zela

**MALLABIA** Joseba Derteano Orain 25 urte Arietzu mendi taldea sortu zuten Mallabian. Hamarkada bat inguruko ibilbidearen ostean, desagertu egin zen mendi taldea, baina herritar batzuk, efemerideagaz ohartuta, urteurrena ospatzeko eta taldea gogoratzeko mendi martxa antolatu zuten joan zen domekan.

Mendi taldeak izena hartzen zuen Arietzu mendira joan ziren. Mallabiko plazatik irtenda,

15 eta 6.5 kilometroko ibilbide bana antolatu zituzten.

Eguerdian Zengotita auzoan jarritako jan-edan postuan elkartu ziren, eta handik aurrerako bidea elkarrekin egin zuten. Goian familia argazkia atera zuten martxan parte hartu zuten 30 bat mallabitarrek. Jan-edana ere izan zen bertaratu ziren denentzat. Arietzu tontorrean mendi taldearen lehenengo urteurrena gogoratu duen plaka bat dago.



Arietzu mendian familia argazkia atera zuten.

**katerin ardoak**  
**inñaki uribe**

**saltsan**

Eguneko menuak - Asteburuetako menu bereziak  
Delicatessena - Ardotegia

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

**saltsan.com**

**Arriike**  
Liburudenda

Kalebarria z/g - Durango  
Tel.: 946 201 893  
Faxa: 946 816 403

**ATERPE** ARDOTZAN  
EGUR ERAIKUNTZAK · TEILATU ETA BARRUKO LANAK

Asier Abendibar 635 74 84 65 www.carpinteriaaterpe.com  
Ander Maiztegi 655 73 75 51



# 24 etxebizitza berri hirigunean


**%95a baino gehiago salduta**  
**Arrakasta!**

DURANGOOn ditugun etorkizuneko proiektuei buruz informa zaitez

**2 logela 225.000€**  
+BEZ- tik aurrera

**3 logela 290.000€**  
+BEZ- tik aurrera

**DURANGO MONTEVIDEO**



Garaje, trasteleku eta pertsonalizazioa **BARNE.**

Informazio gehiago

**946 462 041**  
[www.sukia.com](http://www.sukia.com)



## Bazkideak batu gura dituzte, plaza inguruan txokoa zabaltzeko

Udalarena den eta 130 metro koadro inguru dituen lokala erosi gura dute, bertan txokoa egokitzeko

**IURRETA** A. Basauri

Elkartzeko toki bat izateko gogoak bultzatuta, txoko bat zabaltzeko asmoagaz batu dira hainbat lagun Iurretan. Tartean daude Uxue Alonso, Ainhoa Albizuri eta Edurne Urien. Lokala topatu dute, Aita San Migel Plazaren alboan, eta hori eskuratzeko aukerak aztertu dituzte. Iurretako Udalarena da 130 metro koadro inguru dituen lokal hori, eta salmentan jartzea da asmoa.

Halaxe esan diete txokoa zabaltzeko gura duten iurretarrei. Dena den, horretarako deialdi publikoa noiz egingo zain daude. Erostea aukerarik duten ere ikusiko dute. Izan ere, erosi ahal izateko, bazkide bila da-

biltza momentu honetan. 15 lagun inguru elkartu dira txokoa zabaltzeko prest, baina beste horrenbeste batu gura dituzte egitasmora, “ekonomikoki arrazoizkoa izateko”.

**Urtebete da ideia sortu zela** Duela urtebete inguru jaio zen txokoa zabaltzeko ideia. “Hainbat guraso plazan batzen gara askotan, umeekin. Hantxe ezagutu dugu elkar gehienok, eta negua iristeagaz batera sortutako gaia izan da beti txokoarena. Udalera jo genuen galdetzerara eta lanean hasi ginen”, dio Alonsok. “Leku oso politean dago lokala; leku lasaia da, aproposa umeek jolasteko. Inguru horretan ez dago



Ainhoa Albizuri, Uxue Alonso eta Edurne Urien, txokoa sortu guran lanean dabiltzan taldeko hiru lagun.

ezer, ez dago elkartzeko tokirik, eta gogo horregaz sortu gura da txokoa: elkartzeko toki bat, eroso egotekoa, ospakizunetarako lekua izatea gura dugu”, esan dute.

Gaineratu duten moduan, “bakoitzaren ohituren arabera ere bada, hala ere. Euskal Herrian badago txokoetan batzeko halako ohitura, mahai

baten bueltan elkartzekoa”. Bazkide egitera animatu dute jendea. Interesa duenak honako telefono zenbakira deitu dezake: 686 214 964 (Gaizka).

## ‘Sarean Sun Sun’ eta elkarteekin elkarlana, euskara sustatzeko

Udalak hainbat ekimen abiatuko ditu euskararen erabilera sustatzeko

**IURRETA** A. Basauri

Euskararen erabilera bultzatzeko, hainbat ekimen jarriko ditu martxan, aurten, Iurretako Udalak. Horretarako, Euskararen Aholku Batzordearen eta Elhuyar Aholkularitzaren laguntza izan du. Aurkezturiko ekimenen artean daude ‘Sarean Sun Sun’ lehiaketa eta herriko elkarteekin abiatuko duten elkarlana.

Teknologia berrietan euskararen erabilera indartu gura du ‘Sarean Sun Sun’ lehiaketak: Iurretako bitxikerien inguruan galdera bat botako dute hilero sare sozialen bitartez —WhatsApp, Facebook, Twitter...—,

eta asmatzen dutenen artean 50 euroko txartela egingo dute zotz. Erantzuna 688 825 819 telefono zenbakira bidalita parte hartu dezakete iurretarrekin. Martxoaren lehen abiatuko dute lehiaketa, “ekimen entretenigarria eta gure kultura aberasteko bidea izango delakoan”. Horregaz batera, herriko elkarteekin elkarlana abiatu gura dute. Elkarrekin bakoitzaren euskararen erabilera-maila neurtu eta hori nola bultzatu zehaztuko dute.

Udal langileek parte hartuko duten Berba-sarea proiektua ere abiatu berri dute. Hizkuntza ohituretan eragin eta euren arte-

ko harremanak euskalduntzea du helburu bi hilabete iraungo duen egitasmoak. Erabilera igo den neurtuko dute gero. Era berean, Udal barneko Euskararen Erabilera Plana ere berriztuko dute: 2018-2020 epealdirako, euskararen erabilera bultzatzeko udalak betebeharreko helburuak zehaztuko dituzte.

Aurten ere egingo dute Mintzopotea, maiatzaren 26an. Oraingoan, euskaldun berri eta euskaldun zaharren arteko sareak eraikitzea dute helburu. Merkataria eta ostalariei euskarriak euskaratzeko laguntza eskaintzen ere jarraituko dute.

## Bizileku hutsen inbentarioa egingo du aurten udalak

**MAÑARIA** J. Derteano

Udalak herriko etxebizitza hutsen erradiografia “orokor eta fidagarri” bat eskainiko dien inbentarioa egingo du aurten, Endika Jaio alkateak informatu duenez. Izan ere, “Mañarian etxebizitza hutsen kopuru handia dagoen susmoa dugu”, adierazi du. Inbentarioak hori horrela dela egiaztatuko balu, alokairua sustatzeko programa bat lantzea eta indarrean jartzea hausnartzen dabilta.

Etxebizitza hutsetako jabeen eta alokatzeko prest dauden arteko bitartekaritza egingo lukete programa berriaren bidez. Lehenengoei, esaterako, etxea alokairuan jartzeko berme bat eskainiko lieke, eta bigarrenari, berriz, informazioa herrian bertan jasotzeko aukera, besteak beste.

Inbentarioak beste arlo batzuk zehatzago eramateko aukera ere eskainiko die. Esaterako, Ondasun Higiezinaren Gainera zergan %50eko erretegia jarriko diete etxebizitza hutsen jabeen datorren urtetik aurrera. Aldundiak egindako balio katastroalen eguneraketaren ostean, aukera hori ahalbidetu die udalei. Inbentarioa “baliagarria” izango da kontu hori zuzen eramateko ere.

## Gaztetxearen urteurrena mozorrotuta ospatuko dute

**BERRIZ** M. Zuazubiskar

Zapatuan gaztetxearen 18. urteurrena ospatuko dute Berrizen. Horretarako, gaztetxearen kideek egun osoko egitaraua antolatuko dute.

Jai-giroari hasiera eguerdian emango diotela jakinarazi dute Hiltegiko kideek. 14:30ean gaztetxean mozorro-

Koadrila bakoitza bere jatekoaz eta edatekoaz arduratu beharko da zapatuko bazkarian

tuta bazkaltzeko deia egin diete berriztarrei. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, koadrila bakoitza arduratu beharko da bere bazkarian.

Bazkal ostean, musika eta bingoa izango dira nagusi Berrizko Gaztetxean.

Horrez gain, gaztetxearen kideek jakinarazi dute bazkalostean mozorrorik onena prestatu duen koadrila sarituko dutela.

Ondoren, 18:00etan, Olakuetatik potea egingo dute, eta 23:00etan Zain taldeak *Homoeskua* disko berria aurkeztuko du Berrizko gaztetxean.



Zorione Fundazuri, Ainara Luzarreta eta Justo Alberdi, atzo, Ibarretxe kultur etxean egindako prentsaurrekoaren ostean.





Arrazolako eskola zaharra.

## Arrazolako eskola zaharreko lanak aurtengo inbertsio nagusi

Anbotopeko proiektura 40.000 euro bideratuko ditu Atxondoko Udalak

**ATXONDO** M.Zuazubiskar Datorren asteko udalbatzarrean bigarren bozketa egingo duten arren, asteon egindako ogasun batzordean 2017ko udal aurrekontuak onartu dituzte Gobernu Taldearen (EH Bildu) aldeko botoekin. 1.543.556 eurotan pareratu dituzte sarrera-irteerak. David Cobos alkatearen hitzetan, “diru sarreraren beharrik baldintzatutako aurrekontuak egitea ez da erraza, baina, etorkizunean atzamarrak ez harrapatzeko, modu zuzurrean egiten saiatu gara”.

Aurten, inbertsioetan diru atalik handiena Anbotopeko proiektuak izango du. Arrazo-

lako eskola zaharra eraberritzeko, 40.000 euro bideratuko ditu udalak. Bertan, taberna eta denda txiki bat jarri gura ditzute. Horrez gain, egun etxebizitza sozialak dauden eraikineko beheko lokal batean aterpetxea egiteko proiektua daukate.

EAJko kideek proiektuarekiko desadostasuna adierazi zuten batzordean, eta lanak ez ditzutela inondik inora ikusten esan zuten. “Zortzi urteren ostean, eta prozesu judizialean egon ondoren, proiektua ez dugu alde batera itxiko”, erantzun zien alkateak. Gainera, “orain gastu bat den arren, etorkizunean herriarentzat onuragarria izango

delakoan gaude”, bukatu zuen Cobosek.

Ostera, 31.863 euro Apatako kaleetan hobekuntzak egiteko erabiliko dituztela jakitera eman zuten. Esaterako, plaza eta udaletxea eremu bateratu bihurtzeko.

Bestalde, Axpeko udaletxean eta komunetan egokitzapen obrak egiteko 15.000 euro bideratuko dituzte, eta beste horrenbeste herriko argiteria berritzeko. Herriko liburutegia konpontzeko, berriz, 13.500 euro erabiliko dituzte, eta 5.000 euro herri ortuetarako. Azkenik, 30.000 euro proiektuak idazteko gorde dituzte.

## Martxoaren 11rako, hilekoari buruzko tailerra antolatu dute

**ABADIÑO** I.E.

14 eta 50 urte arteko emakumei zuzenduta, hilekoari buruzko sei orduko tailerra antolatu du Abadiñoko Udaleko Berdintasun Sailak, martxoaren 11rako. *Lunatikak. Menstruazio zikloa mugimendu kontzientearen bidez. Nahi duzu aurkitu zure barruko iparrratza?* izenburua du tailerrak, eta martxoaren 9ra arte egongo da izena emateko aukera: 94-4669420 telefonora deituta edo [berdintasuna@abadiano.org](mailto:berdintasuna@abadiano.org)-ra idatzita eman daiteke izena.

## Hamar ikaslegaz hasiko dute informatika ikastaroa

**IZURTZA** J.D.

Eguaztenez informatika ikastaroak hasiko dituzte liburutegian. Hamar izurtzarrek eman dute izena. Horieta batzuek argazkigintzan sakondu gura dute. Besteek oinarrizko informatika klaseak aukeratu dituzte. Martxoaren 1etik 14ra izango da ikastaroa, astelehenetik eguenera, arratsaldetan.

## SEI HANKAKO MAHAIA

**GOIZTIDI DIAZ**  
EAJ



### Kalean uso, etxean otso!

Egun apur batzuren bueltan hemen doguz gure artean inauteriak. Pertsona asko dira mozorroen festa hau gustuko deukienez. Egun hauetan norberak nahi duena bihurtu dezake norbere burua. Baina izango ote dogu emakumeok festa bakean?

Ez da beharrezkoa inauteriak heltzea beren aurpegia mozorroz estalita dabiltzan pertsonak aurkitzeko. Egunero topo egin dezakegu otso izanik kalean zehar uso jantzita doazen pertsonekin. Eta gutxien espero dozunean, zure bakea urratzen dabie basoko otsoak bezala eraso eginez.

Aspaldi esan dogu ozen ozenki aski dela, baina badi-rudi batzuek gor eta itsu mozorroa deukiela soinean. Eta halan, oraindik ere ikusgai dira gure artean pertsonen mozorrotutako animaliak, bi hankako animaliak hain zuten ere. A ze nazka, ezin kaltetik bakean joan, ezin festak askatasunez bizi.

Inauterietan norberak nahi duen mozorroa jantzeko aukera eta eskubidea ditu. Errespetatu ditzagun pertsona guztien eskubideak. Batzuek ez dute mozorrorik behar, beraien larruazal azpian ezkutatuta daramate barnean duten benetako otsoa. Tamalez, badago oraindik beraien nortasuna egunero mozorrotzen duten munduaren aurrean.

Aurten kemenaren eta adorea mozorroa jantziko dugu otsoen erasoerak aurre egiteko. Hori izango da emakumeon mozorroa, bai inauterietan, bai martxoan ospatuko dogun emakumearen egunean. Eta, nola ez, mozorro horren azpian indarra gordeko dogu, erasoerak aurre egin eta askatasunez bizitzeko.

## DURANGALDEA ASTEON

### Zaindu programako saioak martxan daude

**DURANGALDEA** > Amankomunazgoak ikastaro bi sortu ditu, menpekotasuna duten pertsonak zaintzen dituztenei begira. Zaldibarren burua aktibatzeaz dihardute; astelehenean izango da bigarren saioa, 17:00etan, liburutegi zaharrean. Durangon alzheimerraz jardungo dute, martxoaren 6an hasita. (94 603 00 46)

### Gizonen desjabekuntza, clown tailerren bidez

**BERRIZ** > Gizonen desjabekuntzarako clown tailerra antolatu du Berrizko Udalak, martxoaren 4rako. “Mutilek ditzuten garaile eta bereganatzaile rolei buruz hausnartzea” izango da helburua. Bestalde, egun berean, emakumeentzat autodefentsa tailerra garatuko dute, erasoerak aurre egiteko estrategiek.

### Renoirren erakusketa ikusteko irteera, prest

**DURANGO** > Adinekoen sailak irteera kultural bat prestatu du martxoaren 1erako, arteagaz lotutakoa. Hain zuzen ere, *Renoir: Intimitatea* izeneko erakusketa ikusi ahal izango dute nagusiek. Durangoko tren geltokitik irtengo dira bidaiariak, eguaztenez, 15:30ean. 90 minutu iraungo du erakusketako bisitak.

## IRITZIA

[astekaria@anboto.org](mailto:astekaria@anboto.org)  
asteartea 17:00ak arteko epea

**Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:**

Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

**DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO**

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

ANBOTOk ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitakoek eta emandako iritzien erantzukizunik.



Faouzia Ben Omar Akhlof | Hezkuntza publikoan islama euskaraz irakasteko prestatu da | Tetuan (Maroko), 1987

## “Badaude ikastetxeak eskari nahikoa dutenak islama irakasteko, baina ez dago irakaslerik”

Islama euskaraz irakasteko baldintzak betetzen dituen aurreneko irakasleatariko bat da Abadiñoako Faouzia Ben Omar

> **BERBAZ** Aitziber Basauri

Badira urte batzuk Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza sare publikoan erlijio islamiarra irakasten hasi zirela. Hala ere, Romaesa Benslaiman eta Faouzia Ben Omar dira islama euskaraz irakasteko baldintzak betetzen dituzten aurrenekoak. Faouzia sei urte zituela etorri zen gurasoekin Marokotik Abadiñora.

**Izan duzu aukerarik eskolak emateko? Zeintzuk baldintza bete behar izan dituzue?**

Magisteritza, Euskarazko Gaitasun Agiria (EGA) eta Espainiako Batzorde Islamikoaren ziurtagiria ditugu. Nik oraindik ez dut eskolarik emateko aukerarik izan. Izan ere, abenduan kaleratu zituzten behin betiko zerrendak. Hala ere, ikasturteak aurrera egin ahala deituko digutela uste dugu. Romaesak egin du ordezkapenen bat.

**Gaur egun, bi lagun daude sare publikoan islama erakusten. Gaztelaniaz. Zuek ordezkapenetarako zerrendan zaudete?**

Bai. Momentu honetan, Bizkai-ko sei ikastetxetan irakasten du emakume batek islama. Tartean, Berrizen. Araban, berriz, lauzpabost ikastetxetan ari da gizonezko bat. Bi irakasle baino ez daude, eta ez dira denera helitzen. Badaude ikastetxeak eskaera kopuru nahikoa dutenak islama irakasteko, baina ez dago irakaslerik. Nabarmena da irakasle goz falta, eta horrexegatik zabaldu dira zerrendak. Ez dituzte itxi gainera, premia bat badela erakusten du horrek. Hautazko ikasgaia da. Maila bakoitzean, astean ordubeteko eskola litzateke. Hala ere, gaur egun, zikloka lantzen dute.

**Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan ematen da?**

Bai. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako ere ireki ziren zerrendak, baina inork ez ditu baldintzak bete. Haur eta Lehen Hezkuntzan aritzeko irakasle bi baino ez daude. Zerrendetara 30 lagunetik gora aurkeztu gara, asko euskaldunak. Hala ere, Islamiar Batzordeak eman beharreko ziurtagaria falta zuten.



**Plaza berriak sortuko direla uste duzu? Gurasoen aldetik egin dira eskariak?**

Bai. Eskari kopuru nahikoa dago, eta hainbat ikastetxe daude irakasle gabe. Hala ere, informazio falta handia dago. Konturatu gara, gainera, guraso askok jakin ere ez dakitela aukera hori

dutela. Gertatzen da ere ikastetxeak ez dituela aukera horretaz informatzen, edo irakaslerik ez dagoela esaten dietela. Hurrengo ikasturtera begira gauzak aldatuko direla uste dugu. Gipuzkoan, esaterako, informazio falta handia dagoela ohartu gara. Oso eskari gutxi daude, eta musulman asko daude.

**6.000 familia islamiar inguru daude EAEn, eta 700 neska-mutiko daude ikasgai horretan matrikulatuta. Horiek guztiek islama euskaraz jasotzeko aukera izango dute orain?**

Bai. Sei testuliburu ditugu ikasgaia emateko. Umeen adinari egokitutako testuliburuak dira. Hori bai, gaztelaniaz. Espainia-

ko Islamiar Batzordeak sortutakoak dira, Hezkuntza Ministerioagaz batera. Material hori euskaratzea gura genuke. Hala ere, ordura arte geuk egokitu beharko dugu ikasgaia. Erlijioa bizikera modu bat da, eta hori transmititzea izango da helburua.

**“Berrizko ikastetxean irakasten dute erlijio islamiarra. Iaz hasi ziren”**

**Zein da egoera Durangaldean?**  
Aipatutako informazio faltaz ohartuta, guraso eta familiekin egon gara egoera zein den azaltzeko. Meskitetan ere informatu da aukera honetaz, eta ikusi dugu Durangon, adibidez, ume kopuru nahikoa dagoela ikasgaia emateko. Bai Landakon, bai Zaballan. Zornotzan eta Ermuan ere bai. Ermuan, adibidez, asko dira. Berrizko ikastetxetan irakasten dute erlijio islamiarra. Iaz hasi ziren. Datorren ikasturteari begira eskaria egin gura dutela esan digute askok.

**Gutxienez, zenbat ume batu behar da ikasgaia emateko?**

Ikastetxeak gutxienez hamar eskari izan beharko lituzke irakaslea bidaltzeko. Ziklo bakoitzeko, berriz, bost ume egon behar da. Ikasle kopuru nahikoa badago bidali beharko da irakaslea. Erlijio katolikoaren kasuan ere berdin gertatzen da.

**Sare publikoan islama irakasteko aukera zabaltzeari, zein onura ikusten diozu?**

Herrian gehiago integratzeko modu bat da. Azken finean, gu ere hemengoak gara; hemen egiten dugu lan, bertan ikasten dugu. Beraz, erlijio katolikoa irakasteko aukera dagoen moduan erlijio islamiarra irakasteko aukera ere egotea egokia dela uste dugu; baita inolako erlijiorik ez irakasteko aukera izatea ere bai.

**Islamaren kontrako jarrerak gehiatu dira azken urteetan?**

Hedabideek zabaldu dituzten informazio guztiak musulmanen edo islamaren inguruko ezjakintasuna sortu dezake gizartean, eta horrek guri beste modu batean begiratzea ekar dezake. Hala ere, ezagutzen dugu gure erlijioa. Erlijio baketsua, bizitza balioak irakasten dizkiguna, errespetua sustatzen duena... Dena den, normalizatu beharreko kontua da. Ikasgai hau ondo prestatuta dago, ikasleek islamaren ezagutza jasotzea da helburua, eta ezagutza horiek hezkuntza sarearen barruan jasotzea dela egokiena uste dugu. Aukera desberdinak daudela ikustea eta hori normalizatzea integratzeko era bat da.

**Asier Cosme, Alberto Sanchez, Joshua Froufe eta Unai Uribe | Zain musika taldea**


# “Taldea zuzenean denagaz antzik handiena daukan diskoa da hau”

Disko berria aurkeztu eta taldearen 11. urtebetetzea ospatzeko jaia egingo du Zainek, Berrizen, bihar

**> MUSIKA** Itsaso Esteban  
**Aurreko bi diskoen bidetik doa ‘Homoaskeak’?**

**Asier Cosme:** Ukitu berdina du, baina hobea da! (barrez).

**Unai Uribe:** Orain arteko bidetik goaz, bai. Diskoko kantu batetik bestera beti nabari izan da aniztasuna Zainen, eta horrela gertatzen da *Homoaskeak* honetan ere: estilo desberdineko kanta biltzen ditu.

**Alberto Sanchez:** Kasu honetan, gehien aldatu dena grabatzeko modua izan da.

**A.C.:** Bai, diskoko kanten soinuari dagokionez, pauso bat eman dugu aurrera, eta beti bilatu izan dugunaren antz handiagoa dauka disko honek.

**U.U.:** Disko honetan aldatu den beste gauza bat da letra guztiak Mikel *Keixetarenak* direla. Kanta-idazle ofiziala daukagu. *Homoaskeak* diskoko mundua berak sortua da, eta oso gusturaz gaude emaitzagaz.

**Zelakoa izan da grabazioa?**

**A.S.:** Oraingoan Elortzatarren Estoldetan-en grabatu dugu.

**U.U.:** Askok daukagu teknikari lanetan ibili den Igor Iglesiasi eskertzeko. Zer soinu gura genuen oso argi eduki du.

**Joshua Froufe:** Oso gustura geratu gara Iglesiaren lan tek-

nikoagaz. Gero, masterizatzera eraman dugu, Donostiako Doktor Master-era.

**U.U.:** Bigarren teknikari baten eskutik igarotzeak ere beste ekarpen bat egin dio diskoari.

**Aurrekoak baino prozesu geldoagoa izan da ‘Homoaskeak’ disko berriaren sorkuntza?**

**A.C.:** Gutxinaka joan gura genuen. Abuztuan hasi ginen grabazioagaz, eta abenduan amaitu genuen, baina egiazki 18 grabazio egun izan dira. Tartean, Iglesias bere lana egiten joan da: instrumentu bakoitzaren grabazioak editatzen.

**J.F.:** Eta aurrekoetan ez bezala, banan banan grabatu dugu instrumentu bakoitza.

**A.C.:** Lasaiago hartu ahal izan dugu, lehen baino gutxiago aritu garelako zuzenean.

**Gaztea maketa lehiaketa irabazi osteko sasoiaren estuegi ibili zineten?**

**J.F.:** Esango nuke Zainen ez dakigula estuasuna zer den!

**A.S.:** Gehien, elkarrizketak eskaini behar izan ditugunean larritu izan gara! Promozioa ez da gure indargunea (barrez).

**U.U.:** Beti egon gara jotzeko prest, eta igarri genuen Gaztea irabazi ostean eskaintza gehia-

go etorri zirela, baina promozio kontuetan ez gara abilak...

**Aurreko bi diskoen promozioaz Baga Biga disketea arduratu zen, ezta?**

**A.C.:** Bai, eta euren eskutik *Piratak* diskoa asko promozionatu genuen. *Egunsenti* diskoa gutxiago zabaldu genuen, eta Baga Bigagazko lotura eteten joan zen. Orain, gure gain hartu dugu prozesu guztia, eta lasaiago gaude.

**U.U.:** Eta, horregatik, berriro hutsetik hasi izanaren sentsazioa daukagu.

**Zer iruzkin egin dizkizute disko berriaz?**

**U.U.:** Diskoa kaleratu berri dugu, eta, momentuz, ez dugu *feedback* askorik jaso...

**J.F.:** Egia da hori, baina, entzun dutenei asko gustatu zaie. Nire iritzian ere, egin dugun lanik onena. Ez al da horrela?

**U.U.:** Bai, nire ustez ere bai. Bigarren diskoa lehenengoa baino hobea izan zen bezala, hirugarren hau bigarrena baino hobea dela uste dut.

**Zer zentzutan da hobea?**

**J.F.:** Soinu aldetik, batez ere.

**U.U.:** Bai, Zain zuzenean energia handia transmititzen duen taldea dela uste dut, eta diskotan energia hori apalduta moduan zegoela nabari genuen. Disko honetan indar handiagoa sumatzen da. Gehien produktutako diskoa izan arren, taldea zuzenean denagaz antzik handiena daukana ere bada. Oso melodikoa eta poperoa da Zain, baina indar hori ere bada gure ezaugarria.

**Gogotsu zaudete kanta zuzenean eskaintzeko?**

**A.C.:** Bai, zapatu honetan Berrizen jotzeko, batez ere. Ilusio berezia dugu, ekainetik ez dugulako jo, disko berria herriko gaztetxean eta lagun askoren aurrean aurkeztuko dugulako.

**U.U.:** Bereziki prestatu dugu. Jai berezia izango da, zerbait desberdina. Eszenografia landu dugu, audio batzuk erabiliko ditugu kanten intro gisa.

**J.F.:** Eta inoizko kanta gehien joko dugu, gainera: kanta zahar zein berriak eskainiko ditugu. Zainen historiaren errebaso bat izango da.

**Historia nahiko luzeko taldea da Zain. Zelan lortzen da irauraraztea?**

**J.F.:** Uste dut lehen aipatutakoa dela gakoa: lau taldekideok daukagun patxada. Beste talde batzuek izaten duten presiorik ez dugu sentitu izan.

**U.U.:** Beti gura izan dugu hobetu. Gure buruagaz zorrotzak gara, baina anbizio gutxi izan dugu. Urteetan gorabehera handiak izan ditugu, eta uste dut horrek lagundu duela taldea batuta mantentzen. Zuzenean aritzea eta konposatzea da gure motibaziorik handiena, eta espero dugu urte luzez jarraitzea, sasoi bakoitzean dagokion neurrian.



Berrizko laukotearen hirugarren diskoa da ‘Homoaskeak’, autoekoitza.



**Zain**  
**‘Homoaskeak’**  
2017

**> TAILERRA** Itsaso Esteban

Marc Ambit katalanak gidatuko du, iaz bezala, telesailei buruz Durangoko Bibliotekak eskainiko duen bi saioko tailerra. Bibliotekako arduradunek azaldu dutenez, dagoeneko 15 lagun inguru apuntatu dira, baina datorren astean zehar ere eman ahaliko da izena. Martxoaren 2an eta 3an, 18:30etik 20:30era elkartuko dira *Las mejores series de hoy, de ayer y de mañana* tailerraren parte-hartzaileak, Durangoko Bibliotekan.

Aitzindariak izan ziren telesailei eta gaur egungo eskaintza zabalari buruz ezezik, oraindik estrenaitzear dauden proiektuei buruz ere jardungo da Ambit. “Iazkoa bezala, oso saio dinamiko izango da aurtengoa ere”, nabarmendu du Estibaliz Albizu Bibliotekako arduradunak. Bere azalpenak telesailen pasarteekin uztartzen joaten da Ambit, eta entzuleen parte-hartzea bultzatzeko, jolasak proposatzen ditu, esaterako. Albizuren berbetan, Bibliotekak “testuaz gain, istorioak narratzeko dauden bestelako moduei ere lekua egin gura die” honen moduko tailerrak martxan ipinita, eta ondo erantzun izan du jendeak.

## Telesailei buruzko tailerra egingo dute, bigarren urtez, Bibliotekan

Marc Ambit katalanak gidatuko ditu martxoaren 2 eta 3ko Durangoko saioak



Iaz eskaini zuen berbaldiaren arrakastak bultzatu du Biblioteka Ambit bigarren urtez gonbidatzera.

Hain zuzen ere, gazteak istorioak kontatzera bultzatzea helburu hartuta, besteren artean Durangoko Bibliotekak bultzatutako ekimen berri batek ere martxan jarraitzen du: martxoaren 10era arte bidali daitezke lanak Durangoko I. Book trailer lehiaketara. Gerrei eta

“Istoriok narratzeko dauden askotariko moduei lekua egin gura diegu Bibliotekan”

horien ondorioz sortzen diren migrazioei buruz gogoeta egin eta bideo lanak sortzera bultzatu gura dituzte 12 eta 20 urte arteko durangarrak, Durangoko Udaleko kultura eta immigrazio sailek eta Bibliotekak elkarlanean antolatu duten lehenengo Book Trailer lehiaketan.

## Inauterietako errituei buruzko erakusketa dago Elorrioko Iturrin

Iruñeko San Juan Xar elkarteak prestaturiko erakusketa da ‘Herri ihauteriak’



Besteak beste, inauterietako 18 pertsonaia daude ikusgai Iturrin.

**> ERAKUSKETA** I. E.

Martxoaren 3ra arte, Elorrioko Iturri kultur etxean egongo da ikusgai *Herri ihauteriak* izeneko erakusketa. Euskal Herriko inauteri garrantzitsuenen inguruko informazioa biltzen du erakusketak. Besteak beste, inauterietako errituen inguruan Barandiaranek, Satrustegik eta Jimeno Juriok egindako ikerketetatik ateratako informazioa —errituen jatorriaz eta esanahiaz, esaterako— biltzen du erakusketak, eta baita pertsonaien kopiak ere. 18 pertsonaia

daude erakusketan: momorrotxoa, hartza, Ziripot, Miel Otxin edo Kotilungorri, kasurako.

Iruñeko Donibane auzoko inauteriak antolatzen dituen San Juan Xar elkarteak antolatutakoa da erakusketa, eta besteak beste, Altsasu, Ituren eta Zubieta, Lantz, Ziburu eta Iruñeko inauterien inguruko informazioa biltzen du. Erakusketaren antolatzailen helburua “jendeak horren zaharra den ohitura ulertu eta bere garrantzia mirestea” da.

Inauterietako errituen jatorria eta esanahiak azaltzen ditu, besteak beste, erakusketak

**GEURE DURANGALDEA**

**JON ANDER URKIAGA EGIDAZU**

Irakaslea

**Lausotzen**

Ispilu handi bihurtzen dabil mundua. Ispiluaren aurrean eta aldamenetan jarritako ispilua. Nahikoa da izate bakar bat izate horren isla hutsal bat besterik izan ez dadin haren kopia, eta kopiaren kopia, eta kopiaren kopiaren kopia... Eta izate horren mugimendu txikiena errepikatuko du kopia bakoitzak, robot automatikoak nola.

Globalizazioak muga politikoaren ustezko desagertzea eraman nahi bagaitu ere —harrisiak udazkeneko perretxiak legetxe ernetzen dabilzan arren—, benetan bereizgarri kulturalak eta herrien berezko tradizio-ezaugarriak dabilza desagertzen.

Ezin uka daiteke, esaterako, musikan hiruzpalau doinu direla, botere mediatikoen bitartez, edozein etxetresna-elektrikotako bozgorailuetatik irteten direnak —delako melodien eta letren kalitatea epaitzeko bate-re intenziorik izan gabe—.

Baina globalizazio horren ondorioa oraindik eta muturrekoagoa da, aldeak alde, gure janzkerari begiratzerakoan. Iruipena dut arropa berdinak erabiltzen ditugula Bilbon, Amsterdamen zein Buenos Airesen —barkatuko al dit orokorkeria xume hau Ternua eta Salomon zaleak—.

Eta are erradikalagoa da usainaren kontua. Denok usaindu behar dugu berdintsu eta “ondo”. Higienaren ize-nean, desodorante zein perfume baten lurrun-usainera lerrokatu nahi gaituzte, garbitasuna gizon-emakume biluzien liraintasunarekiko zorretan balego bezala.

Baina, bueno, zer esango dizuet nik, testu hau idaztean Astore izerditakoa, Levi's prakak eta, zelan ez, gizonezkoentzako Axe desodorante usaina igaritzen zait eta.

**Andalucía FM 28.02**  
Centro Andaluz  
Martxoaren 4an, 19:00etan

**Atte hil aurretik**  
Beheko Larraine (Nafarroa)  
Martxoaren 5ean, 19:00etan

Sanagustinalde, 12 - Tel.: 946 030 021  
sanagustin@durango-udala.net

**PLATERUENA** Durangoko Kafe Antzokia [www.plateruena.eus](http://www.plateruena.eus)  
Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

<p><b>JAT ETXEA</b></p> <p>EGUNEKO MENUA IGANDEETAN MENU BEREZIAK</p>	<p><b>OTSAILAK 24</b> 21:30ean <b>JAM SESSION</b> JAM SESSION</p>	<p><b>MARTXOAK 1</b> 19:00etan <b>JON ANDONI DEL AMO</b> BERBALDIA</p>	<p><b>MARTXOAK 3</b> 22:00etan <b>BEACH BEACH + THE OWL PROJECT</b> KONTZERTUA</p>
---	---	--	--

# Deskontu Sarea, abian!

Orain,  
**BERRI**lagunek  
deskontuak tokiko  
saltokietan!

Sartu webgunean, eta baliatu deskontuak:  
[berria.eus/berrialaguna/deskontusarea](http://berria.eus/berrialaguna/deskontusarea)

## Deskontu kupoi bat baliatu nahi duzu?

1. Sortu kontua **BERRI**lagunaren webgunean
2. Inprimatu kupoia Deskontu Sarea ataletik edo deskargatu telefonoan
3. Aurkeztu dendan **BERRI**lagun txartelarekin batera

Zure ekarpena deskontuen bidez berreskuratuko duzu:

- > Dendak
- > Jatetxeak
- > Museoak
- > Landetxeak
- > Ikuskizunak
- > Aisialdi guneak



Babestu **BERRIA** eta gozatu abantailez!

**berria**  
mundua-euskarari-erama

# Markeliñe eta Ganso & Cia taldeak saritu dituzte FETEN antzerki azokan

Ikuskizunik onenaren saria jaso du Markeliñek; Interpretaziorik onenarena, Ganso & Cia taldeak


**> ANTZERKIA** Itsaso Esteban Gijongo (Asturias) FETEN antzerki jaialdiaren 26. edizioan parte hartzeko hautatu dituzten 77 lanetatik, *Euria* aukeratu du epaimahaiak saridun nagusia izateko. Zornotzako taldeari eman diote ikuskizunik onenaren saria. *Kaput* antzezlanean egiten duten lanagatik, bestalde, Durangoko Ganso & Cia taldeko Gorka Ganso eta Txefo Rodriguez eman diete interpretaziorik onenaren FETEN saria.

“Erreferentziatzeko azoka da Gijongoa, publiko familiarri zuzenduriko antzerkiaren arloan eskaparate oso inportantea”, azpimarratu du Iñaki Egiluz Markeliñeko kideak. Programatzaile asko joaten da azoka horretara arloko nobedadeen berri jasotzera, eta taldeentzat beraien lana ezagutzera emateko aukera oso ona da FETEN. “Parte hartzea bera da

sari handia, eta saridun izatea are bultzada handiagoa”, dio Egiluzek. Markeliñeren moduko ibilbide luzeko konpainia batentzat, “taldea artistikoki bizirik dagoen seinale pozgarria” da FETEN-en saridun izatea.

Galeraren eta heriotzaren gaia jorrazteko Markeliñeren modua gogoko izan du epaimahaiak. Egiluzek azaldu duenez, sentsazio onak eduki zituzten taldekideek FETEN-eko emanaldian. “Aretoa beteta zegoen, errespetuzko isiltasun bat nabari zen emanaldian, eta txalo zaparrada handia eskaini ziguten amaieran”, adierazi du.

Ikuskizun onenaren FETEN saria 1998an ere jaso zuen Markeliñek. *Kartoibiraka* antzezlanagaz, ordukoan. Handik bi urtera, zuzendaritza eta interpretazio onenen sariak eman zizkieten Asturiasko hiriburuan, *Mambrú* antzezlanagatik.



Iñaki Egiluz Markeliñeko kideak azaldu duenez, azokako emanaldi bietan sentsazio oso onak izan zituzten taldekideek.

Durangoko San Agustin kultureko konpainia egoiliarra den Ganso & Cia, aldiz, *Kaput* obragaz lortu du, lehenengoz, FETEN lehiaketarako hautatua izatea. Sari garrantzitsua eman diete, gainera. “Gehien lantzen

dugun arloa pertsonaiena izaten delako, saria interpretazio arlokoa izatea bereziki inportantea da guretzat”, dio Gansok. Hamarkada bi daramatzate Gansok eta Rodriguezek clownaren arloan lan egiten, eta bereziki

pozgarria da eurentzat halako azoka batean “bi pailazoren interpretazio lana saritzea”. Barikuan izan zen sari banaketa, eta diote dagoeneko igarri dutela sariaren efektua: hainbat proposamen jaso dituzte asteen.



Gorka 'Ganso'-k eta Txefo Rodriguezek hamarkada bi daramatzate lanean clown arloan.

# Jazzeko estandarren gainean inprobisatzera batuko dira musikariak, Plateruenean, gaur

Ikasturteko bigarren jam sessiona antolatu dute gaur gauerako, Durangon



Alain Concepción & The Soulmen taldeak zabalduko du, gaur, Platerueneko jazz musikaren gaua.

**> MUSIKA** Itsaso Esteban Beste musikari batzuekin zuzenean aritzeko aukera eskainiko die hala gura duten artista guztiei, gaur, 21:30ean, Durangoko Plateruena. Ikasturte honetako bigarren *jam sessiona* —jazz inprobisazio saioa— izango da kafe antzokiko hori, Bartolome Ertzilla Musika Eskolaren eta Kontserbatorioaren eskutik.

Alain Concepción abeslari zornotzarrak, Julio Veigak eta Jose Gallardok joko dute emanaldi hasieran

Giroa berotzen hasteko, Alain Concepción & The Soulmen hirukotea gonbidatu dute Durangoko kafe antzokiko gaurko emanaldira. Alain Concepción abeslari zornotzarrak, Jose Gallardo saxofonistak eta Julio Veiga pianistak osaturiko musika taldearen soul, R&B, funk eta blues doinuak izango dira, beraz, lehenbizi, entzungai. Martxoan disko berria aurkeztekoa da Alain Concepción & The Soulmen talde hori.

Musikazaleentzako Platerueneko gaur gaueko hitzordua abiatuko duen emanaldi horren ostean, parte hartu gura duten musikari guztiek izango dute oholtzara jotzera igotzeko aukera. Emanaldiaren parte hori gidatzeko, Joanes Ederra baxu-jotzailea eta Martin Holland bateria-jotzailea gonbidatu dituzte.

*Jam Sessiona* antolatu duten Bartolome Ertzillako kideek aurreratu dutenez, honako doinu estandar hauen gainean inprobisatu dute musikariak: *Summertime*, *Chameleon*, *Papas Got a New Brand Bag* eta *Lullaby of Birdland*. Azpimarratu dutenez, baina, beste edozein proposamen ere aintzat hartzeko prest daude. Parte hartuko duten musikariak aukera izan dute aurretik beraien proposamenak egiteko, eta gaur bertan ere egin ahaliko dituzte.

Concepcionen hirukoteak jo ostean, gura duten musikari guztiak arituko dira inprobisazio saioan

Urizarri Barrutieta Barrenetxea | Errugbia | Durango, 1997

# “Uste dut momentu honetan ez naizela oso kontziente zer ari naizen lortzen eta bizitzen”

Okerrrik ezean, martxoko lehen asteburuan Las Vegasen jokatu du Espainiako selekzioagaz Urizarri Barrutietak.

**> KIROLA** Maialen Zuazubiskar Errugbiaren mailarik gorenera saltoa eman du hamahiru urtez DRT taldean jokatzen ibili den Urizarri Barrutieta durangarrak. Sidneytik etorri berri, Las Vegasera joateko prestatzen dabil Getxo Errugbi taldean dabilen Barrutieta.

Sidney zazpiko selekzio absolutuagaz debutatu berri duzu, eta otsail hasieran Galesen hamabosteko selekzioagaz. Nolako esperientziak izan dira?

Esperientzia izugarriak izan dira, oraindik ezin sinetsita nabil azken hilabete hauetan bizitzen nabilenagaz. Egia esan, uste dut momentu honetan ez naizela oso kontziente zer ari naizen lortzen eta bizitzen. Lehenengo, hamabosteko selekziorako deitu zidaten, eta gero zazpikorako. Izugarria izan da guztia, talde eta selekzio indartsuen kontra jokatze-ko aukera izan dut.

Orain, okerrrik ezean, Las Vegasera joango zara datozen egunetan.

Bai, hori da. Egun hauetan Madrilen gaude Espainiako selekzioagaz kontzentratuta, eta hemendik irtengo da Las Vegasera joango den taldea. Estatu Batuetako partiduak Women's Seven Series-ekoak izango dira, eta martxoko lehen asteburuan jokatuko ditugu.

**Denboraldi berriagaz errugbiaren maila gorenera heldu zara.**

Lagunartean jokatzen egotetik maila ikaragarria dagoen leku batera pasatu naiz konturatu gabe. Denboraldi berriagaz gauza handiak bizi izan ditut: talde handi batez jokatzen nabil, maila itzelean eta talde handien kontra. Gainera, konturatu orduko, etxean jokatzen egotetik munduan jokatzerara pasatu naiz.

**Nola etorri zitzaizun Getxora joateko aukera?**

Duela pare bat urte beraien taldera joan nintekeela esaten zidaten Getxokoek, baina momentu hartan ez nuen horrela-



“**DRTkoen laguntzarik barik ez nintzateke nagoen tokian egongo**”

**Zer daramazu hamahiru urtean zure kluba izan denetik? Niretzat DRT dena izan da eta dena izango da. Beraien laguntzarik barik ez nintzen nagoen tokian egongo. Hemen hasi naiz, eta dakidan dena bertan ikasi dut.**

**Eta, talde berriagaz hilabete batzuk daramatzazula ikusita, nola zaude?**

Oso gustura nago. Bertan aurkitu dudana asko gustatzen zait. Oso nabaria da jendea lehiatzera doala, eta entrenatzeko modua oso desberdina da. Gainera, entrenamenduetarako eta erraztasun asko ematen dizkirate, eta Durango taldeari esker askotan Arripausetan entrenatzeko aukera izaten dut.

**Orduan, ez duzu Getxora entrenatzera joan behar izaten?**

Partiduak izaten ditugunean birritan joan behar izaten dut Getxora taldeagaz entrenatzera. Baina, asteburuan partidu-

“**Taldea oso indartsu dago, eta denboraldi ona egingo dugula uste dut**”

rik ez baldin badugu, Durango entrenatu naiteke, eta barikuetan Getxora joan. Beraz, hemendik eskerrak eman gura dizkiet DRTkoek, mutilen taldeagaz entrenatzen uzteagatik.

**Sailkapenari begirata, momentu honetan, besteak baino partidu bat gutxiago jokatuta bigarren postuan zaudete.**

Taldeak maila izugarrian hasi du denboraldia. Pasa den urtean ohorezko maila irabazi zuen INEF Barcelona menderatu genuen duela pare bat aste. Gainera, beste taldeek baino partidu bat gutxiago jokatuta bigarren postuan gaude, bi garaipen eskuratuta.

**Denboraldiari begira, nola ikusten duzu taldea?**

Taldea oso ondo ikusten dut, indartsu gaude eta denboraldi ona egingo dugulakoan nago. Gure helburu nagusia ohorezko maila irabaztea da, eta lortu dezakegula uste dut. Saiatu barik ez gara geldituko.

**Pertsonalki, zein helburu dituzu urte honetarako?**

Kategoria honetan jarraitu gura dut, beraz, apurka-apurka hobetzen joan eta lortzen nabilen maila on honez jarraitzea gustatuko litzaidake.

**Ziklo olinpikoa oraintxe hasi berri da. Tokio 2020n egoitea izan daiteke etorkizuneko erronka bat?**

Espero dut aukera izatea, bai, gutxienez postu bat lortzeko. Olinpiar jokoetan egon diren hainbat jokalarik beterranok errugbia utzi dute. Beraz, aukerak egon daitezke. Horrek esan gura du urte hauetan gogor lan egitea tokatzen dela maila gorenean mantendu ahal izateko.

# Biharko Izarrak txapelketak promesarik onenak batuko ditu eguenetik aurrera

Gorka Otaduy berriztarrak iazko bi garaipenak hobetzea du helburu bere bigarren parte-hartzean



Danel Elezkano eta Ibai Zabala —goian alde banatan— txapelketan parte hartuko duten pilotariekin aurkezpen ekitaldian.

**> PILOTA** Joseba Derteano Biharko Izarrak pilota txapelketa prestigiotsuaren 14. aldia hasiko dute datorren astean. Urtero legez, afizionatu mailan dauden pilotaririk onenetakoak ikusi ahalko dira Mallabiko pilotalekuan. Horietako bat Durangaldekoa da: Gorka Otaduy berriztarra. Iazko estreinaldia

ez zitzaion nahi bezala irten, eta aurten hobeto ibili gura du.

Alde batetik, iaz "zortea" falta izan zitzaioela uste du Otaduyk, sei partidutik hirutan ordezko aurrelariarekin jokatu behar izan zuelako. Baina bere errendimendugaz ere ez zen gustura geratu. "Ez nintzen oso ondo ibili eta, azkenean, seitik bi partidu

irabazi nituen. Beraz, aurtengo helburua iazkoa hobetzea da. Partidu batzuk jokatu ostean ikusi egin beharko da finalerdietara sartzeko aukerarik badugun. Hori gaitzagoa izango da", onartu du atzelari berriztarrak.

Ez dago dudarik finalerdietara sailkatzea garesti egongo dena. Otsailaren 23ko eguene-

tik maiatzaren 25era arteko 18 jardunaldietan afizionatueta dauden 24 promesarik handienak igaroko dira Mallabitik. Nagusienak 22 urte ditu. Gazteenak Unai Alberdi azpeitiarra eta Iker Salaberria goizuetarra dira, 17 urte gaz.

Profesionalitateko bi enpresa nagusietako begiraleek gertutik jarraituko diote gazteen lanari. Iaz Biharko Izarrak aritutako askok profesionalitatean debutatu zuten ondoren: Julen Martijak, Ander Errandonek, Jon Erasunek, Unai Lasok, Jon Ander Peñak eta txapelketa irabazi zuten Iñigo Martinezek eta Andoni Ugaldek, besteak beste.

## Partiduak, eguenero

Jardunaldirik gehienak eguen gauetan (21:15etik aurrera) izango dira. Datorren eguenean honako bikoteek emango diote hasiera txapelketari: Prieto-Urizar eta Alberdi-Irurita lehenengoan eta, Larrañaga-Arandia eta Espinal-Mariezkurrena bigarrenengan. Otaduyren lehen partidua martxoaren 16an da.

## ADITUAREN TXOKOA

**JUAN CARLOS PEREZ**

Areto-futbola



## Epaileentzat baliabide gutxi

Betidantik, arbitrajeak polemika eta eztabaida pizten ditu futboleant. Epaileen lana, areago areto-futboleant, oso gaitza da. Ez ditut epaileak epaituko. Partidu bateko arau-haustea adieraztea unean bertan epaileak duen hautemate mailaren menpe dago. Jokaldi horietan epaileak dira inpartzialenak. Jokalari, teknikari eta zaleak alde interesatua dira eta, objektiboak izan nahi dugun arren, gure hautematea ez da inpartziala izaten.

Beraz, hori alde batera utzita, honakoa galdetu nahi nuke: zelan dago epaileen antolaketa? Azken urteetan Futbol 11ko epaileen lan-taldea ikaragarri hazi da. Baina areto-futboleant ia ez dago mugimendurik. "Beti epaile berberak arbitratzen dute", komentarioa zabaldua dago klubentz artean. Gutxienez badira lau urte epaile berriak batzeko kartelak ikusi ez dutana Durangaldean.

Eta formazioa? Irudipena dut —beste teknikari eta zuzendari batzuek ere bere egiten dutena— epaileen maila beherantz doala. Jokalari batek baloia eskuarekin jo ostean, falta ez-zuzena adierazten ikusi dut epaile bat denboraldi honetan. Epaile horren argudioa zen nahi gabe jotakoak ez-zuzenak zirela, eta nahita jotakoak zuzenak. Behin, partidu baten aurretik epaile baterano batek delegatuoi azaldu zigunez, azken batzarraz geroztik esku denak zigorgarriak dira, baina nahita jotakoentzat bakarrik izango da txartela.

Beste hamaika adibide jarri nitzake, baina ez dago dezentzako tokirik. Beharbada, hurrengoan gehiago.



**Jokin Altuna**  
Aspeko pilotaria

## “Denek denek kontra jokatzeko sistema hori gustatzen zait”

Zelan gogoratzen duzu zure parte-hartzea?

Txapelketa oso polita da, eta oso gustura jokatu nuen. Go goan dut azken hiru-lau urteetan izen handia hartua zuten txapelketa zela.

Eta zer gomuta duzu Julen Urruzolagaz jokatu zenuen final hartatik?

Santxoren eta Irustaren kontra jokatu genuen. Galtzen hasi ginen. Finalak aurrera egin ahala gora egin genuen, eta

partidua dezente gogortu zen. Azkenean, txapela lortzea oso pozgarria izan zen biontzat.

**Afizionatu mailako pilotaririk onenak batzen ditu urtero.**

Gaur egun dagoen txapelketarik inportanteenetakoa da. Antolatzaileek lan handia egiten dute dena behar bezala irten dadin, eta pilotari afizionatuak gustura joaten dira.

**Txapelketak berezitasun bat du: bikoteak aldatu egiten di-**

**ra partidu bakoitzean. Zer iruditzen zaizu sistema hori?**

Denek denek kontra jokatzeko sistema hori gustatzen zait. Pilotarientzat ondo datorren zerbait da. Partidu bakoitzean baldintza konkretu batzuetara moldatu behar duzu, eta abaragarria dela uste dut. Inork ez du abantailarik atzelari edo aurrelari hobe batez jokatzeko. Sistema horregaz denek aukera berdinak dituzte, eta garbi ikusten da sailkatzen direnak onenak izan direla.

Eraikuntzarako materiala  
**MACOBER**  
Zeramika eta gresa  
Eitua industriagunea, 66 BERRIZ  
Tel.: 946 827 890 macober@movistar.es

**Edinara Urreta Jainaga**  
OINETAKO PATOLOGIAK  
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK  
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ  
IMQ MAPFRE  
Herriko gudarien kalea, 10 behea - DURANGO - Tel./Faxa: 946 215 404





# JATETXE GIDA

**ÑAM!****OLAJAUREGI JATETXEA**

Kurutziaga Kalea, 52 DURANGO

**Tel.: 946 200 864**

Eguneko menuak, bereziak, taldeentzakoak eta ospakizunak. Egunero zabalik.

[www.olajauregi-jatetxea.com](http://www.olajauregi-jatetxea.com)**ÑAM!****KANBIO JATETXEA**San Migel Dudea auzoa  
AMOREBIETA-ETXANO**Tel.: 946 730 033**

Aste bitarteko menua, asteburuko menua, menu berezia eta karta.

**ÑAM!****PLATERUENA Kafe Antzokia**

Landako etorbidea, 4 DURANGO

**Tel.: 946 030 300**

Egunero zabalik. Menu bereziak, egunekoak, taldeentzakoak eta ospakizunak.

[www.plateruena.eus](http://www.plateruena.eus)**ÑAM!****KOBIKA JATETXEA**

San Ignazio, 8 DURANGO

**Tel.: 946 810 003**Egile sukaldaritza eta tradizionala.  
Menu bereziak eta karta.**ÑAM!****IBARRA  
SAGARDOTEGI-GARAGARDOTEGIA**

Ibarra auzoa, z/g · ZORNOTZA

[www.ibarra-sagardotegi.com](http://www.ibarra-sagardotegi.com)**Tel.: 946 731 100**

20. urteurrena. Orain garagardotegia eta sagardotegia; menu ezberdinak. Gure upategian egindako sagardoa. Astean zehar soilik erreserbentzako zabaltzen da.

**Anbotoren lagunak**

Ibarra Sagardotegi-Garagardotegiaren eskutik bi pertsonentzako menua zozkatuko dugu Anbotoren Lagunen artean.

Hile honetako irabazlea: **Borja Relaño Arana!****ZORTE ON!**

# Gorostiza eta Rodriguez Euskadiko txapelkun Anoetan

Illart Zuazubiskar ere maila handian aritu da pistako Munduko Kopan

**> PISTA** Joseba Derteano Pistako Euskadiko txapelketan urrezko dominak kolokatu dituzte Aroa Gorostizak (Elorrio, 1999) junior mailan eta Markel Rodriguezek (Abadiño, 2001) kadeteetan. Bientzat Euskadiko bigarren txapela izan da.

Gorostiza txapelketa irabazteko faboritoen artean zegoen. Urrea irabazi izana baino harriarriagoa da berau irabazteko modua: jokoan zeuden lau modalitateetan onena izan zen Anoetako belodromoan.

Rodriguezek bigarren urtez jarraian irabazi du Euskadiko txapelketa. Pistan ez du parekorik kadete mailan.

Txirrindulari biak Espainiako Kopan ere aurreneko hiruren artean sailkatuta daude. Proba bi falta zaizkie Kopa amaitzeko.



Markel Rodriguez eta Aroa Gorostiza Anoetan, erdian Joseba Gorostiza dutela.

**Zuazubiskar, zortzigarren** Bestalde, Ziortza Isasik eta Illart Zuazubiskarrek Munduko Kopako proba lehiatu dute Kolonbian. Zuazubiskar abadiñarrak zortzigarren amaitu zuen, eta

une batzuetan podiumerako borrokan sartuta ibili zen. Egingandako lanagaz gustura itzuli dela adierazi du.

Isasik taldekako jazarpen proban parte hartu zuen, baina berak eta taldekideek ezin izan zuten proba amaitu.

## Lasterketa eta gastronomia munduan zehar Iturrietagaz

**> KORRIKA** J.D.

*Chiloé: Lasterka munduan ize-neko telebista saioa grabatzen hasi da, duela astebete, Zigor Iturrieta korrikalari, sukaldari eta aurkezle eubarra. Lehen grabazioa Belgikan egin du, La Magnetoise lasterketan parte hartuta. Proba irabazi egin du, gainera. Kirol proba aprobetxatuta, Belgikako gastronomia eta lekuak erakutsiko dizkie ikusleei. Belgikaren ostean, Hegoafrika, Uruguai, Nikaragua, Thailandia eta Alemania izango dira hurrengo bidaien helburuak.*

### Garaipena Belgikan

Urte bi dira Zigor Iturrietak lasterketa bat azkenekoz irabazi zuenetik. Belgikan 600 korrikalarik parte hartu zuten. "Pozarren nago. Bi urte baino gehiago egon naiz irabazi barik, eta gaur egun edozein lasterketatan irabaztea gaitza izan da, eta ez nago horretara ohituta. Lasterketako marka hiru minututan hobetzea lortu dut", adierazi du korrikalari eubarrak.

## 320 judoka batuko ditu Durango Uria sariak

Estatuko gazterik onenak etorriko dira



Durangoko judokak Bizkaiko txapelketan.

**> JUDO** J.D.

Zapatuan gazte mailako Durango Uria torneo jokatu dute Landako kiroldegian. Estatuan antolatzen den txapelketarik garrantzitsuenetakoa da, eta 320 bat parte-hartzaile batzea itzaroten dute. Frantziako eta Andorrako judokak ere etorriko direla jakinarazi dute antolatzaileek.

Durango Judo Taldeak sasoi betean dauden ordezkari izango ditu. Joan zen asteburuan, kadete eta haur-kategoriako Bizkaiko txapelketan hainbat garaipen lortu zituzten. Ondorioz, Euskadiko txapelketara sailkatzea lortu dute. Joan zen asteburuan emandako maila errepikatzen saiatuko dira bihar, Durangon.

## Azkorbebeitiak Apuko Igoera irabazi du

**> KORRIKA** J.D.

Zaramilloko Apuko Igoeran Oihana Azkorbebeitia abadiñarra izan zen azkarrena nesketan, joan zen domekan. Garaipena lortzeaz gain, lasterketako errekorra hautsi zuen, 01.59.08ko denbora eginda. Aurretik, Oihana Kortazarrek zuen errekorra. Abadiñarrak hasieratik hartu zuen aurrea, eta bakarrik heldu zen helmugara. Sei minutuko aldea atera zion Virginia Perez bigarren sailkatuari. Mendi lasterketak 10. aldian egin zuen, eta guztira 635 parte-hartzaile izan zituen.



Oihana Azkorbebeitia, podiumean.



Abadiñoako tiralariak Herbehereetan.

## Etxeko urte grisa gozotzeko, hiru domina European

**> SOKATIRA** J.D.

Abadiño Sokatira Taldeak hiru domina irabazi ditu Herbehereetan, hango talde batek bere 30. urteurrena ospatzeko antolatutako txapelketan.

Denboraldiko pozik handiena izan da abadiñarrentzat. Euskadiko txapelketan aurreko postuetatik urrun ibili dira, baina Herbehereetako hitzordua serio eta gogor prestatu dute, urte askoan taldearen bizkarrezurra izan diren beteranoekin. Asteburuan Euskadiko Txapelketako azken kanporaketa jokatu dute.

### AGENDA

#### > ERRUGBIA

**OHOREZKO B MAILA** (gizonak)

**Durango Nissan Gaurisa - Uribealde**

· Zapatuan, 17:00etan, Arripausuetan.

#### > FUTBOLA

**BIGARREN B MAILA** (gizonak)

**Amorebieta - Leioa**

· Zapatuan, 16:00etan, Urritxen.

**EUSKAL LIGA** (emakumeak)

**Elorrio - Añorga**

· Zapatuan, 18:00etan, Eleizalden.

**OHOREZKO MAILA** (gizonak)

**Zaldua - Retuerto**

· Zapatuan, 16:15ean, Solobarrian.

**Iurretako - Urduliz**

· Zapatuan, 16:30etan, Larrakozelaian.

**LEHENENGO ERREGIONALA** (gizonak)

**Amorebieta B - Berriatuko**

· Zapatuan, 18:15ean, Txolonen.

#### > ARETO FUTBOLA

**HIRUGARREN MAILA** (gizonak)

**Presion Break - Ostadar**

· Domekan, 12:00etan, Berrizburu kiroldegian.

**EUSKAL LIGA** (gizonak)

**Elorrioko Buskantza B - Aretxabaleta**

· Zapatuan, 18:00etan, Elorrioko kiroldegian.

**LEHENENGO ERREGIONALA** (gizonak)

**Elorri Txiki - Ibaide**

· Zapatuan, 16:00etan, Elorrioko kiroldegian.

**Mallabia B - Ituriondo**

· Domekan, 18:00etan, Zaldibarko kiroldegian.

#### > SASKIBALOIA

**EUSKADIKO LEHENENGO MAILA** (emakumeak)

**Tabirako Baqué - Bera Bera**

· Domekan, 12:00etan, Landako kiroldegian.

**LEHEN ERREGIONALA** (gizonak)

**Julza-Zaldua - Mungia**

· Zapatuan, 17:00etan, Zaldibarko kiroldegian.

**Zornotza - Erandio**

· Domekan, 16:00etan, Ixerbekoan.


**LEHEN ERREGIONALA** (emakumeak)

**Zornotza - Basauri**

· Domekan, 18:00etan, Ixerbekoan.

# • EGIN JAUZI KOMUNITATERA •

ANBOTO komunikazio-taldeak elkarteei, eragileei eta norbanakoei atari digitaleko komunitatea izeneko atala eskaintzen dizue.



Zuen ekimenen berri emateko, edota artikuluak, argazkiak zein iritziak plazaratzeko. Animatu eta parte hartu!

## • Komunitateko kide egiteko jarraibideak •

**1.**  
Sar zaituz  
[www.anboto.org](http://www.anboto.org)  
webgunean



**2.**  
“Sartu”  
botoia sakatu  
izen-emate  
orriara joateko



**3.**  
Bertan, hiru  
aukera dituzu  
izena emateko



**4.**  
**Facebook eta Twitter bidez**

Horrela erregistratzea errezagoa da. Facebook eta Twitter kontuagaz sartu gura duzula aukeratu eta, “Saioa hasi” aukeratu ostean, zuzenean kide izango zara.

### **Posta bidez**

- “Erabiltzaile berria naiz eta izena eman nahi dut” botoiari sakatu.
- Erabiltzaile izena aukeratu eta zure e-posta kontua sartu beharko duzu, norberak nahi duen pasahitzarekin. Adi! Ez du zertan e-mailaren berbera izan behar.
- Erabiltzaile izena eta pasahitza sartu eta komunitateko kide izango zara.

### **Komunitateko edukiak sortu**



• Behin komunitateko kidea zarela, “Sartu” botoia zegoen lekuan zure ikonoa ikusiko duzu.



• Zure ikonoari sakatu ondoren, “Gehitu edukia” botoiari eman eta edukiak sartzeko orrialdera eramango zaitu.



• Hainbat eduki sortu ahal izango duzu: iruzkinak, argazkiak, bideoak, artikuluak eta hitzorduak.



• Komunitatera igotzen dituzun hitzordu guztiak zuzenean agenda atalean agertuko dira.

## > Inmobiliariak



### ETXEBITZAK ALOKAIUAN

**DURANGO.** Bat, bi eta hiru logelako etxeak alokairuan. Hilean 550€-tik hasita.

### ETXEBITZAK SALGAI

**DURANGO.** Tabirakalea. 3 logelako etxea, komuna, sukaldea, egongela, dena kanpora begira. Eta garaje itxia.

**DURANGO.** Errotarixuena Atiko zoragarria. 3 logela, bi komun, bi terraza zabal, sukaldea, egongela, dena kanpora begira, eta garaje itxia lau kotxe sartzeko. Ikusgarria.

**DURANGO.** Francisco Ibarra. 4 logelako etxebizitza, 2 komun, sukaldea, egongela balkoiarekin eta despentsa.

**ATXONDO.** 3 logelako etxebizitza, komuna, sukaldea, egongela, dena kanpora begira, hiru balkoi. Horrez gain, garaje itxia.

**ELORRIO.** 4 logelako etxebizitza, egongela, sukaldea balkoiarekin, komuna, eta garajea itxita.

**DURANGO.** -Kalebarria, 3 logelako etxebizitza, sukaldea, egongela, eta komuna. 120.000€.

**DURANGO.** ARTEKALE. Azken etxebizitza, bikoak, trastelekuarekin. Prezioak 165.000€ -tik hasita.

**LEKEITIO.** 3 logelako etxebizitza, komuna, sukaldea, egongela terrazarekin, garajea. Urbanizazio pribatu baten barruan, igerileku eta frontoiarekin.

**ABADIÑO.** Aita Letona. Etxebizitza ederra 2 logelarekin, komuna, sukaldea, egongela, garajea eta trastelekua.

**ABADIÑO.** Iturritxo. Logela bateko apartamentua, sukalde amerikarra-egongelarekin, komuna, esekitokia, ganbara, garaje bikoitza eta trastelekua.

**DURANGO.** ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. 2 logela, 2 komun, sukalde amerikarra, egongela, garaje itxia eta terraza ikaragarria.

**ATXONDO.** Etxebizitza 2 logelarekin, komuna, despentsa, sukaldea esekitokiarekin, eta egongela.

**ZALDIBAR.** Etxebizitza, 3 logela, komuna, sukaldea, egongela balkoiarekin, guztiz berriztatua. Horrez gain, trastelekua.

### LURSAILAK SALGAI

**ABADIÑO.** 1.000 m<sup>2</sup>-ko lursaila salgai, bifamiliarra eraikitzeko baimenarekin. Zonalde egokia.

**BERRIZ.** 10.000 m<sup>2</sup>-ko lursaila. Zelai ederra sarbide oso onarekin.

**IURRETA.** 5 hektarea inguruko lursaila, Abeletxe bat egiteko aukera dago. Sarbide onarekin.

**ABADIÑO.** Bifamiliarra eraikitzeko lursaila, 1.000 m<sup>2</sup>. Informazio pertsonalizatua.

**AMOREBIETA. EUBA.** Txalet bifamiliarr bat eraikitzeko lursaila, 3.000 m<sup>2</sup> inguruko azalerarekin.

**AMOREBIETA. LARREA.** 27.000 m<sup>2</sup>-ko lursail ederra, dena partzela bakarrean.

### BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

**ABADIÑO. GAZTELUA.** Baserri ikusgarria, arku eder batekin sarreran, ekialdera begira, 20.000 m<sup>2</sup>-ko lursaila baserriaren ondoan.

**BERRIZ.** Txaleta 1.200 m<sup>2</sup>-ko partzelan, Abeletxe kalean. Hegoaldera begira. 4 logela, 3 komun, sukaldea, egongela, eta garajea.

**ATXONDO.** Baserri ikusgarria Martza auzoan, 15.000 m<sup>2</sup>-ko lursaila baserriaren inguruan. Teilatu berria. Zonalde pribilegiatua.

**BERRIZ.** B° Murgoitio. Bifamiliarr ederra salgai. 6 logela, 2 sukalde, 2 egongela, 6 komun, garaje bikoitza, 12.000 m<sup>2</sup>-ko lursaila. Kokapen ezin hobea, Anbotora begira.

**MENDATA.** Lamikiz auzunea. Baserri bifamiliarra berrizatzeko. Orientazio pribilegiatua, oso eguzkitsua. Prezio interesgarria.

**DURANGO.** Eraikin atxiki ederra, izkina, guztiz hornitua. Ia berria, estreinatzeko.

**BERRIZ.** Baserri ederra, Murgoitioko zonaldean. Egokia landa-turismorako, landetxea. Ikuspegi ezin hobek.

### ETXEBITZAK SALGAI

#### SAN IGNACIO



• 90 m<sup>2</sup> erabilgarri dituen etxebizitza, 50 m<sup>2</sup>-ko terrazarekin. 3 logelarekin, egongela zabala balkoiarekin, sukaldea esekitokiarekin, bi komun, garaje partzela eta trastelekua. 250.000€. €

#### FRANCISCO IBARRA



• 101 m<sup>2</sup> erabilgarri dituen etxebizitza: 3 logela, egongela, sukalde jarrita, 2 komun eta bi balkoi handi. Berogailua eta igogailua. 235.000€. €

#### SASIKOA



• 2 logela, egongela, sukaldea jarrita eta komun bat, ganbara eta garajea itxita. 230.000€. €

#### MONTEVIDEO



• 94 m<sup>2</sup> erabilgarri, duela gutxi berriztatua. 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. 230.000€. €

#### HERRIKO GUDARI



• 3 logela, saloia, egongela, sukaldea, 2 komun eta balkoia ditu. 12,50 m<sup>2</sup>-ko ganbara eta garajea. 219.000€. €

#### MATIENA



• 3 logelako etxebizitza, saloia, sukaldea jarrita, 2 komun, ganbara. 185.000€. Garajearekin erosteko aukera, 199.000€. Igogailua garajearaino jaisten da.

[www.inmoduranguesado.com](http://www.inmoduranguesado.com)

### ETXEBITZAK SALGAI

#### AVDA. LANDAKO



• 3 logela. 2 Komun. Sukaldea. Egongela. Terraza. Ganbara eta garajea. 226.000€. €

#### IURRETA



• 3 logela. Komuna. Sukalde zabala. Despentsa. Egongela. Eguzkitsua. Berriztatua. 160.000€. €

#### MATIENA



• Etxebizitza altua. Ikuspegi onekin. Dena hegoaldera begira. 2 logela. (lehen 3 logela.), komuna. Egongela eta sukalde zabala. Terraza etxe guztian zehar. Ganbara. Garajea itxita (aukeran) 170.000€. €

#### J.M.ALTUNA



• 100 m<sup>2</sup>. 3 logela. 2 komun. Sukalde esekitokiarekin. Egongela terrazarekin. Ganbara. Garajea. 269.000€.

#### IURRETA



• 3 logela. Bainugela. Sukalde. Egongela terrazarekin. Eguzkitsua. Eraberritua. 159.000€.

#### M.TORRE



• 113 m<sup>2</sup>. 3 logela. 2 komun. Sukalde. Egongela terrazarekin. Trastelekua eta garajea. 220.000€. €

**LOKALAK ETA ETXEBITZAK ALOKAIUAN. KONTSULTATU.**  
[www.inmoetxetxo.com](http://www.inmoetxetxo.com)

**ALOKAIUAN  
ETA SALGAI DITUZUN  
HIGIEZINEN BERRI  
EMAN NAHI  
AL DUZU?**



**Anbotok tarte hau  
eskaintzen dizu**

**Informazio gehiagorako:**  
Tel.: 946 217 902  
[publi@anboto.org](mailto:publi@anboto.org)





**> ZORION AGURRAK**

 zorionak@anboto.org  
 eguazteneko 14:00ak arteko epea


> **Ane Iturriagaetxebarria Zabala** eguaztanean jaio zen. Zorionak familiari lagun guztien partez!



> Zorionak, **Garazi eta Ehiarne**, Junen partez! Otsailaren 28an 6 urte beteko dituzue. Mosu handi bana eta poz-ozirik ospatu eguna.



> **Julenek** sei urte betetzen ditu gaur, eta **Jasonek eta Koldok** 10 eta 9 urte bete dituzte. Zorionak gure hirukote maitagarriari guztion partez eta musu potoloak.



> **Duela** zortzi urtetik gure bizitza biziki hobetu da. Eskerririk asko gurekin izatearren. Oso ondo pasa zure egunean, eta eman egurre piñatari. Musu potoloa aitaren, amaren eta arrebaren partez.



> Otsailaren 28an **Haizeak** urtetxo bat beteko du. Zorionak danon partez, bereziki Ipar eta Paulen partez. Mosu handi bat, pitxin!



> Mutil handi hauek 9 urte egin dituzte. Zorionak **Aratz, Oier, Bingen, Peio eta Enaitz**.



Ermodo, 11 · DURANGO  
 Tel.: 946 201 663  
 gozatudurango@gmail.com  
 f Gozatu Gozotegia

Zorionak, **Eider (665. alea)**! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.


**MIREN RODRIGUEZ**
**Kendu azukrea**

Nutrizioaren arloan ohikoa da “kaloria hutsak” esamoldea. Modu horretan definitzen dira energia ugari ematen dituzten elikagaiak, baina mantenugai gutxi edo batere ez. Adibidez, freskagarri azukretsuak, alkohola, irinak edo azukre findua gehiegi ez hartzea komeni da.

**Azukre sinpleak.** Elikagai batzuek berez izaten dituzte azukre sinpleak edo azkar xurgatzen direnak, esneak adibidez (laktosa izaten du), edo frutek (fruktosa). Baina elikagai natural horiek beste hainbat osagai ere ematen dute: ura, mineralak, bitaminak, zuntza eta proteinak. Hortaz, osotasun horren barrenean hartuta, justifikatuta dago azukre sinpleak izatea, eta beste mantenugai horiekin guztiekin orekan dagoela esan liteke. Araza beste azukre mota batek eragiten du, guk geuk elikagaiei jartzen diegunak (mahaiko azukrea, ezitia, marmelada, kakao disolbagarria...) edo ekoizleek elikagai prozesatuei eransten dietenak, gailitei, gozokiei, txokolateei, gelatinei edo opilei. Guk jaten ditugun elikagaiek kaloria asko ematen badute, baina bestelako mantenugai interesgarri gutxi, “kaloria hutsak” hartzen ari garela esaten da.

**Freskagarriak.** Lata bat edatea sei azukre koskor hartzea bezalakoa da. Yaleko Unibertsitatean egindako ikerketen arabera, haur batek egunean hartzen duen freskagarri lata bakoitzeko, %60 handitzen da gizentasuna izateko arriskua. Diabetesarekin ere badu lotura; emakumeengan, berri, egunean lata bat freskagarri edateak %23 handitzen du bihotzeko gaixotasunen arriskua.

**> BOTIKAK**

<b>BARIKUA, 24</b> 09:00-09:00	<b>Navarro</b> Artekalea 6 - Durango	<b>Guarrochena, Lide</b> Bide Zahar 14 - Zornotza	<b>Sarasketa, Diego</b> Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
<b>Etxebarria</b> Montevideo etorb. 2 - Durango	<b>De Diego</b> Infraurondo 22. - Durango	09:00-22:00	<b>EGUAZTENA, 1</b> 09:00-09:00
<b>Guarrochena, Lide</b> Bide Zahar 14 - Zornotza	<b>Sagastizabal</b> Askatasun etorb. 19 - Durango	<b>Sarasketa, Diego</b> Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza	<b>Navarro</b> Artekalea 6 - Durango
09:00-22:00	<b>Bartolome</b> Gabiola 2 - Berriz	<b>ASTELEHENA, 27</b> 09:00-09:00	<b>Goiria, Mari Carmen</b> Sabino Arana 6 - Zornotza
<b>Sanchez, Miren Itziar</b> Urbitearte poligonoa, 4 P8, Abadiño	<b>Larrañaga-Balentiaga</b> Berrio-Otxoa 6 - Elorrio	<b>Mugica</b> Andra Maria 9 - Durango	09:00-22:00
<b>Sarasketa, Diego</b> Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza	<b>Eguren, Isabel</b> Trañabarren 15 - Abadiño	<b>Goiria, Mari Carmen</b> Sabino Arana 6 - Zornotza	<b>Sanchez, Miren Itziar</b> Urbitearte poligonoa, 4 P8, Abadiño
<b>Iruarrizaga, Karmele</b> San Miguel 15 - Zornotza	<b>Goiria, Mari Carmen</b> Sabino Arana 6 - Zornotza	09:00-22:00	<b>Sarasketa, Diego</b> Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
<b>ZAPATUA, 25</b> 09:00-09:00	<b>Melero, Rosa Mari</b> San Pedro 31 - Zornotza	<b>Sanchez, Miren Itziar</b> Urbitearte poligonoa, 4 P8, Abadiño	<b>Iruarrizaga, Karmele</b> San Miguel 15 - Zornotza
<b>Unamunzaga</b> Muruetatorre 2C - Durango	<b>Iruarrizaga, Karmele</b> San Miguel 15 - Zornotza	<b>Iruarrizaga, Karmele</b> San Miguel 15 - Zornotza	<b>Sarasketa, Diego</b> Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
<b>Guarrochena, Lide</b> Bide Zahar 14 - Zornotza	09:00-14:00	<b>Sarasketa, Diego</b> Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza	<b>MARTITZENA, 28</b> 09:00-09:00
09:00-13:30	<b>Irigoien</b> Bixente Kapanaga 3 - Iurreta	<b>MARTITZENA, 28</b> 09:00-09:00	<b>Balenciaga</b> Ezkurdi plaza 8 - Durango
<b>Etxebarria</b> Montevideo etorb. 2 - Durango	09:00-22:00	<b>Balenciaga</b> Ezkurdi plaza 8 - Durango	<b>Goiria, Mari Carmen</b> Sabino Arana 6 - Zornotza
<b>Bazan Diaz</b> Uribarri 5 - Durango	<b>Sanchez, Miren Itziar</b> Urbitearte poligonoa, 4 P8, Abadiño	<b>Goiria, Mari Carmen</b> Sabino Arana 6 - Zornotza	09:00-22:00
<b>Campillo</b> Montevideo etorb. 24 - Durango	<b>Sarasketa, Diego</b> Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza	<b>Sanchez, Miren Itziar</b> Urbitearte poligonoa, 4 P8, Abadiño	<b>Iruarrizaga, Karmele</b> San Miguel 15 - Zornotza
<b>Balenciaga</b> Ezkurdi plaza 8 - Durango	<b>DOMEKA, 26</b> 09:00-09:00	<b>Iruarrizaga, Karmele</b> San Miguel 15 - Zornotza	<b>Sarasketa, Diego</b> Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
	<b>Bazan Diaz</b> Uribarri 5 - Durango		


 merkataritza gida  
 sarean

[anboto.org/gida](http://anboto.org/gida)
**Ezagutu eta erabili Durangaldeko merkataritza gida euskaraz eta sarean!**


Merkataritza gidan agertzeko deitu: 946 217 902



**Gure zorra**

Frankismoak euskararen izan zuen eraginaz hamaika kontu entzun izan ditut txikitatik, baina ez dakit eten horren gordintasunaz jabetzen nintzen, Durangoko pertsona nagusien testigantzak jasotzen ibili zen neskari elkarrizketa egin nion arte. *Ahotsak.eus* ekimenerako zebilen lanean, eta kontatu zidan harrituta geratu zela etxe batzuetan; Durangoko hizkera aberats-aberatsa zuten adineko pertsona batzuek ez zuten seme-alabekin euskaraz egiten, ez zieten euskara transmititu.

Gure gurasoek bizi izan zuten hori. Kalea gaztelaniarena zen, eta egitekotan, etxean egiten zen euskaraz. Baina batzuek etxean ere ez; gaztelaniaz ez zekien amamagaz agian zer edo zer, baina gurasoek etxean euskara ez transmititzea erabaki zuten. Beldurratetik, euskaraz zuten prestigio txarratetik, burlengatik, ume haiek gaztelania ondo ikastea gura zutelako.

Hortxe gure hizkuntzaren zulo beltza. Orduko hartaz kontziente izanez gero, egoerari buelta emateko egin izan den lanak balio itzela hartzen du. Ederra da gaur egun aitita-ama-direnei ikastolak sortu zituzten garaia kontatzen entzutea. Begietan dirdira berezia pizten zaie. Ederra da, baita, adibidez, handik hainbat hamarkadatar Euskaldunon Egunkaria sortu zuteneko dokumentala ikustea. Gure hizkuntza biziberritzeko ilusio izugarriaz egin du lan jende askok.

Inbidia apur bat ematen dit, lana eginda eman digutelako guri, eta eurek bizitako ilusioa ez dugulako era berean biziko. Baina, pentsatzen jarrita, gure aurrekoei zor diegu ilusioa mantentzeko ahalegina, ekimen berriak sortu eta begietako dirdira mantentzekoa.

# “Argazki-kamera nire maskara da; jaiaren erdian egoteko aitzakia itzela da”

Inauteriak datozela-eta txokolatez apaindutako palmerak eta donuts mozorrotuak egin ditu 'Paste'k

**> AKUILUA** Aitziber Basauri  
Erregetan 8.000 erregeopiletik gora egin zituzten, eta oraindik San Blas opilekin jarraitzen dute. Inauteriak ere badatoz: tostaden sasoia. Pastelgile izateko ofizioa gustatu egin behar zaizula argi du. Bere azken sorkuntza ANBOTOr egindako pastela izan da. Pozik jaso dugu oparia!

**Eubakoa ala lurretakoa?**  
Oso gustura nago orain Iurretan, baina, Eubakoa (barrez).

**Noiztik zara pastelgilea?**  
18 urte gaz hasi nintzen osabagaz, Bilbon. Oso pastelgile ona zen, eta ofizioarekiko maitasuna transmititu zidan. Ofizio hau gustatu egin behar zaizu. Nik sukaldari izan gura nuen, baina Bartzelonara edo Madrilerara joan behar nuen, eta etxean ez zuten begi onez ikusten. Azkenean, pastelgile bukatu dut. Piloa gustatu zitzaidan. Gainera, ikas-teko asko mugitu naiz, Bartzelonan, Andorran... ibili naiz.

**Ogibide gozoa da zurea. Zu zeu gozozalea zara?**  
Lehen baino gehiago. Txokolatearen mundura erori naiz pixka bat; gustatzen zait, bai!

**Zein duzu postre gogokoena?**  
Gozen artean, gurinezko hos-

topil bat, krema on bategaz. Itzela! Hala ere, niretzat postre-rik onena gazta da, ogiagaz eta ardo apur bategaz. Ez dago horrelakorik!

**Pastelak baino, artelanak egiten dituzula entzun dugu...**

Denbora daukat orain. Oso pozik nator lanera, egunero sortzen dut-eta zerbait. Inauteriak datozela-eta txokolatez apaindutako palmerak eta donuts mozorrotuak egin ditut. Maskarak, eta karo-linoak ere bai!

**Inauteri zalea zara? Zer dute?**  
Bai! Edozer jarrita, edonor izateko eta edozer egiteko aukera ematen dute. Beti errespetuz! Baina, aurten, desagertu egingo naiz. Mendira noa. Sanmigeletatik ez naiz gelditu-eta!

**Argazki-kameragaz?**  
Argazki-kamera nire maskara da. Jaiaren erdian egoteko aitzakia itzela da. Gainera, gustatzen zait argazkiak ateratzea, jendeagaz partekatzea... Inauteritan, sanmigeletan, txitxi-burduntzian...

**Zer izan da eskatutako gauzarik arraroena?**

Denetarik izan dugu. Barruan eraztun bat eramango zuen pastela eskatu digute; baita emaztearengandik banantzeko pastel bat ere bai. Oso gogorra! Izango dira 25-27 urte,

intsignia nazionala eramango zuen pastela eskatu zidala bezero batek. Ikurrina jarri nuen nik, eta eraman zuen pastela. Hura intsignia nazionala ez zela-eta haserre bueltatu zen. Ez dakit zer gertatu zen pastelagaz! Ez zen gehiago etorri. Pasa-te piloa ditut.

**Kontatzeko modukorik?**

Abadiñar baten despedidarako, urez betetako globo bat txokolatez jantzi genuen. Charles Chaplinen txapelaren itxura zuen pastelak, dena dekoratuta. Aiztoa sartzean ur guztia atera zen mahai gainera. Asmoa, baina, globoa lehertzea zen. Hurrengo despedida batean lehertu zen pastela: lehegailu baten itxurako tarta egin genuen, metxa eta guzti. Eta benetan egin zuen eztanda, barruan petardo bat zeraman eta! Baldarkeria bat izan zen, eta jatetxekoei ez zitzaizkien gustatu (barrez).

**Pastel on baterako sekretua?**

Maitasuna. Bizitako edozein arlotara eraman daiteke hori. Hala ere, erreazioa ikustea da emaitza neurtzeko era onena.

**Dantzan egitea baino errazagoa da pastelak egitea?**

Bai! Apur bat baldarra naiz, baina gustatzen zait. Erraza dela dioten horiek ikusi gura nituzke nik pastelak egiten!

**Badago postre-rik gabeko bazkari edo afari onik?**

Ez! Baliteke txarto jan izana, baina postre on bategaz bestelako sentsazioagaz altxatzen gara. Gainera, horrela ez bada, langabeziara goaz gu! (barrez).



## 2017 INAUTERIEETAKO ARGAZKI LEHIAKETA

Bidali zuen argazkiak [astekaria@anboto.org](mailto:astekaria@anboto.org) helbidera, martxoaren 3a baino lehen. Webgunean botorik gehien argazkiaren egileak **asteburu pasa bat** irabaziko du!

Lehiaketaren oinarriak [www.anboto.org](http://www.anboto.org) webgunean